

Alkate makila jokoan

Maiatzaren 28an hurrengo lau urteetarako udalbatza aukeratzea dagokigu herritarroi. Lau alkategaiekin hitz egin dugu.

ehbildu / IZARO ELORZA ARREGI
EH BILDUren alkategaia

"Parte hartzean oinarritzen den eredia da gurea, berdinetik berdinerakoa, herritarrekin herritarrentzat, denondako lan egitekoa"

Izaro Elorza Arregi (Oñati, 1983) izango da berriz ere EH Bilduren alkategaia maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Azken lau urteotan alkatetzan jardun ostean, lanean jarraitzeko gogoaz dago, duela lau urte hasitako bidean sakondu eta herri hobea baten aldeko lanean jarraitzeko konbikzioz. Telekomunikazioetan ingeniaria eta MVE enpresako zuzendari teknikoa da Elorza. Kirola, batez ere korrika egitea, mendia, natura, irakurtzea eta bidaiatzea dira bere zaletasunak



EH Bilduren alkategaia izango zara berriz ere. Lanean jarraitzeko gogoz?

Zalantzarik gabe. Duela ia lau urte hasitako bidean jarraitzeko gogoz nago. Oso aberasgarria izan da urte hauek esperientzia. Pertsona asko ezagutu ditut, errealtate ugari; munduaren eta herriaren ikuskera zabaldu dut; harreman sarea sendotu dut; eta barrutik ezagutu dut Udala.

Besteak beste, ikusi dut nola eragin daitekeen erakundeetatik, zelan eraiki daitekeen maite dugun herri hau, eta zer egin behar genukeen berdinean segitzeko. Jardunez ikasi dut, jardun eta jardun, esperientzia metatzera heldu arte. Gainera, ez da bakarrik egindako bidea izan. Herrikide ugari izan ditugu bidelagun, batean zein beste lanean, eta pozgarria da hori, erronkari heldurik segitzeko motibazio iturri. Finean, parte hartzean oinarritzen den eredia da gurea, berdinetik berdinerakoa, herritarrekin, herritarrentzat, denondako... lan egitekoa.

Orain, lau urteko esperientziarekin, beste modu batera ikusten dira gauzak?

Hala da. Orain, duela ia lau urte ez bezala, barrutik eza gutzen dugu Udala —gogoratu jende berri asko aurkeztu ginela zerrendetan—. Bada-kigu nola egin behar diren gauzak, hein handi batean, ikasiak gaude dagoeneko. Horrek asko errazten ditu gauzak herriaren egunerokoa kudeatzerakoan.

Gainera, lau urte hauetan Covidak eragindako ezohiko testuingurua bizi beharra izan dugu, eta, gogorra izan bada ere, baliagarri izan dugu gauzak nola egin behar diren ikasteko. Ez ginen inertzian erori, eta unean uneko erabakiak hartzeari ekin genion, jakin bagenekielako egoera zaila zela herritar guztiontzat, eta, modu batera edo beste, momentuko sentimenduak arintzeko egin beharra genuela lan. Hori ere ikasgai izan dugu. Beste herri batzuk egin ez zituztenak egitera ere heldu ginen —azoka, kultura eskaintza, udalekuak... mantentzea, esaterako—. Horrek konfiantza ematen digu.

“
Herritarrek erabaki beharko dute azken urteotako norabidean jarraitu gura duten, edo, kontrakoan, politika egiteko era eta eredu tradizionalagoetara bueltatu nahi duten

“
EH Bildun elkarrekin doazen bi lan esparru dira herrigintza eta udalgintza. EH Bilduren eredia da, eta esango nuke horrek norabide aldaketa garbia ekarri diola Oñatiri, onerako

“
Hainbat aurpegi berri ikusi ditugu EH Bilduren hautagai zerrendan. Nolako lan-taldea osatu duzue?

Bai. EH Bildu ez da geldi dagoen alderdi bat. Proiektua eguneratzen dabil etengabe. Oraingoan ere, egungo beharrak erdigunean, epe ertain-

luzerako proiektuak gaurkotzen jardun dugu, momentuko egoeraren diagnostikoa egiten. Eta herritar ugari jardun dute horretan. Finean, herritarren alderdia da EH Bildu. Orain, geuk dugu hartua herria kudeatzearen erronka, eta, hurrengo fase batean, beste batzuek izango dute. Naturalki egiten dugu hori. Freskotasuna behar dute proiektuek, ezin dute zerbait estatiko izan —gizartea aldatuz doa etengabe—, eta, besteren artean, jende berriak ematen dio hori.

Oso pozik eta harro nago aurkeztu dugun lan-taldearekin. Talde sendoa dugu, lau urte hauetako esperientzia eta batu direnen freskotasuna uztartzen dituen. Pertsona konprometituak eta jantziak ditugu, eremu ezberdinetan lanean aritutakoak. Nik uste talde bikaina dugula aurrera begira ditugun erronkei erantzuteko.

“
Zuek udalgintzan jardungo duzue, baina herrigintzan diharduen talde sendo baten babesa duzue.

Hori da. EH Bildu ez da udal



HAUTAGAIEN ZERRENDA 1. Izaro Elorza Arregi 2. Xabier Igartua Loidi 3. Lierni Altube Moioa 4. Anik Zubizarreta Arturo 5. Iñigo Ruiz Barron 6. Iñaki Olalde Altzelai 7. Saioa Arkonada Perez 8. Iker Oñate Aiastui 9. Asier Lauzurika Arrondo 10. Ekhiñe Mendi Altube 11. Idoia Aierbe Lizarralde 12. Jesus Aranburu Arregi 13. Juanje Anduaga Madinazkoitia 14. Haizea Agirre Barrena 15. Rosa Igartua Urkia 16. Heddu Nafee Mohamed 17. Marilo Unzurrunzaga Posada 18. Arkaitz Bengoa Hernandez 19. Amaia Goitia Arenaza 20. Jesus Mari Aramburu Raymond.

hauteskundeetarako zerrendak egitera mugatzen den alderdia. Esan moduan, herrieren aldeko lanean jarduteko konbikzioz dihardugu, eta hori ezin daiteke soilik udalgintzatik egin. Komunitate sendoa dugu. Asko eta askotarikoak dira herrigintzan diharduten kideak, era jarraituan zein ekintza puntualetan. Eta funtsezkoa da euren jarduna. Beraz, herrikide bakoitzaren lana aitortzea besterik ez zaigu geratzen. Esaterako, hamarka herritar izan dira laster aurkeztuko dugun herri programa egiteko prozesuan —alorkako diagnostikoa, ekintza plana...—.

Finean, EH Bildun, elkarrekin doazen bi lan esparru dira herrigintza eta udalgintza. Gure lan egiteko eran, udalgintza ulertzeko dugun moduan, guztiz zentzuzkoa eta beharrezkoa da hori.

EH Bilduren eredua eta egiteko moduan jarri zenuen azpimarra zure aurkezpenean. Zergatik?

Gobernatzeko eredu propioa

daukagulako, benetako parte hartzean oinarritzen dena, berdinetik berdinerari diharduena, herritarrekin, herritarrentzat, denontzako, lanean dabilena. Ez gara hitz soil bat, gobernantzarako eredu bat baizik, eta horregatik jardun dugu eta dihardugu egunerokoan herrikideekin batera lanean. Guztiok egiten dugu herri hau den modukoa. Herritarrekin jardutea ez da helburu edo helmuga, helburu edo helmuga desberdinetara heltzeko jardun modua baizik. EH Bilduren eredua da. Eta esango nuke horrek norabide aldaketa garbia ekarri diola Oñatiri, onerako, esango nuke.

Nola ikusten duzu herria gaur egun?

Bide onean dela esango nuke. Esan moduan, norabide aldaketan sakontzen darrari, eta horrek eragina du herritarren ongizatean: gora doaz zerbitzu publikoetan egiten ditugun inbertsioak, diru laguntzetara bideratzen

“
Energia merkaturatzaile propioa sortu gura dugu. Horrekin, energia berriztagarriak, prezio justuagoak, bidezko eredu, autosufizientzia... bermatu gura genituzke

“
Zaintza plan integrala lantzeko asmoa dugu (haurren, nerabeen, gaixoen, helduen... zaintza), zaindua ez ezik, zainzailea ere aintzat izango duena

diren partidak (kultura, landa eremuko auzoak, ongizate zerbitzuei loturikoak, gazteei bideraturikoak...)... Baina bidea egiten segi beharra dago. Prest egon beharra dugu epe ertainera zein luzera etor litezkeenei heltzeko (iraunkortasuna, zahartze demografi-

koa, industriaren eraldaketa, lana...). Horretan gabiltza.

Zeintzuk dira EH Bilduren hurrengo lau urteetarako egitasmo nagusiak?

Asko eta askotariko proposamenak landu ditugu herri programa lantzeko egindako prozesuan. Batetik, energia merkaturatzaile propioa sortu gura genuke. Dagoeneko hasiak gara horretarako lanean. Horrekin, energia berriztagarriak, prezio justuagoak, bidezko eredu, autosufizientzia... bermatu gura genituzke.

Horrez gain, zaintza plan integrala lantzeko ere egingo genuke lan (haurren, nerabeen, gaixoen, helduen... zaintza), zaindua ez ezik, zainzailea ere aintzat izango lukeena. Horrez gain, herritar ororen ongizatea bermatuko luketen politiken, elikadura mahai bat sortzearen, etxebizitza eskubidea bermatzearen, Harrera Plan bat lantzearen, herri hezitzailean sakontzearen, landa eremuko auzoen, garapen sozioekonomikoaren, tokikoaren... alde egingo genuke.

Nola ikusten dituzu M28ko hauteskundeak?

Ilusioz gaude. Etxeko lanak eginda goaz maiatzaren 28ko hauteskundeetara. Gogor jardun dugu Oñatik azken urteetan hartua duen norabidean sakontzen, eta herrikide ugari, alor batekoek zein bestekoek, landuriko herri programa sendoa dugu esku artean. Orain, herritarrek erabaki beharko dute azken urteotako norabidean jarraitu gura duten, edo, kontrakoan, politika egiteko era eta eredu tradizionalagoetara bueltatu nahi duten. Desberdinak diren proposamenak izango dituzte aukeragai. Euren esku dago erabakia. Geu, lanean jarraitzeko gogoz, ilusioz eta herri hobeago baten aldeko lanean jarraitzeko konbikzioz izango gaituzte.

"Esango nuke aldaketa haizea dabilela Oñati aldean, eta lan egingo dugu aldaketa gauzatu dadin"

Amaia Erostarbe Letamendi (Oñati, 1966) izango da EAJ-PNVren alkategaia maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Zinegotzia izan da azken zortzi urteetan, eta lanean jarraitzeko gogoz dagoela aitortu digu, aurrera begiratzeko eta Oñatik aurrera egiteko behar duen bultzada emateko, herritarrekin elkarlanean. Filologian lizentziatua eta euskal kulturgintzaren transmisioan aditua da Erostarbe, eta irakaslea da lanbidez. Senideekin egotea maite du Amaiak, eta Oñati ere bai, bertako parajeetan ibiltzea, natura zaintzea... Irakurtzea eta artea ere oso gustuko ditu.

Zortzi urte daramatzazu zinegotzi lanetan eta orain alkategai izateko urratsa eman duzu. Lanean jarraitzeko gogoz?

Bai, jakina! Oñatik aurrera egingo badu, ezinbestekoa da lanean jarraitzea. Orain arte, zinegotzia izan naiz zortzi urtean, oposiziotik lan egiten; orain, alkategaia naiz, eta, alkatetza lortuz gero, gure helburua izango da, geure mundu-ikuskeratik eta geure lan-ildoekin, Oñatiren etorkizuna eraikitzea, herritarrekin elkarlanean, haiei entzunez eta haien parte-hartzearekin, hurbiltasunetik eta gardentasunez.

Nolako da Oñatiko EAJK udal hauteskundeetara aurkezten duen taldea?

Talde anitza, konprometitua eta sendoa izango dut ondoan, eta lanerako ilusioa, gogoa, ideiak eta kemena ez zaigu falta. Berriak dira taldekide gehienak, eta lanerako gaitasun handikoak. Alor ezberdinetan arituak eta adituak dira, eta nork bere arloan badu nahikoa eskarmentu: merkataritzan, berdintasu-

nean, kulturean, industrian, kirolean, zerbitzuetan... Profil desberdin horiek, gainera, balio erantsia eman diote gure hautagai-zerrendari. Denok gaude pozik oñatiarrak izateaz, herri ederrean bizi gara, denok maite dugu gure herria, eta denok gura dugu Oñati oñatiarrentzat bizitzeko lekurik onena izatea. Horixe izango da gure xedea.

Herriaren etorkizuna herritarrei entzunez eta elkarlanean eraiki nahi duzula azpimarratu duzu.

Herritarrek daude gure jardunaren erdigunean eta jomugan. Ezinbestekoa da, horretarako, herritarrei entzutea eta haien proposamen, iradokizun, eskaera eta kezka jasotzea. Horregatik, alkate naizenean, udaletxeko atea beti zabalik egongo da herritarrei entzuteko.

Nola ikusten duzu herria gaur egun?

Guk gurako genukeen moduan, ez, egia esanda. Urteak aurrera egin ahala, herriek aurrera egiten dute. Oñatik, ordea, gabezia ugari ditu



Oñatik gabezia ugari ditu daukagun udal gobernuarekin: kaleak ez daude garbi, errespetu gutxi dago ondarearekiko, berri beharreko ekipamendu zaharkituak ditugu, etxebizitza falta dago...

San Martin egoitzaren ondoan bi zerbitzu berri proposatzen ditugu: Bizi Osorako Etxeak, mendekotasun arina duten pertsonentzat, eta, bestetik, Eguneko Zentroa eta Laguntza Zerbitzua duten etxebizitzak, ezintasun iraunkorra dutenentzat

daukagun udal-gobernuarekin. Besteak beste, honako hauek: kaleak ez daude garbi, errespetu gutxi dago onda-

rearekiko (pankartak nonahi zintzilik, kartelak, pintadak... paretetan), atondu eta berri beharreko eraikin, azpiegitura eta ekipamendu zaharkituak ditugu, etxebizitza falta dago, garraio publikoa eskasa da, energia-eraginkortasunean ez da ahalegin handirik egin, tokiko ekonomiak ere aupada behar du (lehen sektoreak, merkataritzak...) gazteentzako eta pertsona nagusientzako zerbitzu batzuk falta dira... Gure iritzian, badago, beraz, zer hobetu eta non hobetu. Eta EAJ gogotsu dago aurrera begiratzeko, lanari ekiteko eta Oñatik aurrera egiteko behar duen bultzada emateko.

Hurrengo urteetarako lehenentasunen artean gazteentzako etxebizitzak eraikitzea proposatzen duzu. Non?

Guk nahi dugu gazte oñatiarrak haien bizi-proiektua Oñatin egitea. Tamalez, hori ezinezkoa ari da bihurtzen, ez dagoelako inolako plangintzarik etxebizitzaren inguruan gaur egun. Gure proposamena etxebizitzak Garayko



HAUTAGAIEN ZERREDA 1. Amaia Erostarbe Letamendi 2. Xabier Mugarza Aiausti 3. Itziar Alonso Agirre 4. Eva Maria Gayubo Cazorla 5. Jon Kepa Gerrickagoitia 6. Claudia Valdivieso Ascuí 7. Miren Elgarresta Larrabide 8. Angel Mari Biain Zubiagirre 9. Mikel Garcia Urtaza 10. Jose Antonio Marquez Nogues 11. Mari Jose Etxegoien Arzuaga 12. Francisco Javier Perez Serrano 13. Maria Margarita Mejía García 14. Luis Ruiz de Azua Oyanguren 15. Mari Carmen Galdos Urzelai 16. Mikel Iturrospe Gabilondo 17. Lourdes Idoiaga Urkia 18. Aitor Arregi Murgiondo 19. Nekane Maiztegi Ugarte 20. Aitor Urzelai Inza

eremuan eraikitzea da, gehienak prezio mugatuarekin: gutxienez, % 55 babes ofizialekoak eta % 20 tasatuak. Alokairuan ere atera daitezke etxe batzuk. Era horretan, gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztuko diegu. Dena ez da eraikitzea izango, hala ere, Oñatin hutsik dauden etxebizitzak birgaitzeko, merkaturatzeko eta alokairuan jartzeko urratsak emango ditugu.

San Martin egoitzaren ondoan nagusientzako bi zerbitzu berri proposatu dituzu? Zeintzuk?

Batetik, Bizi Osorako Etxeak (Matia institutuaren proiektuan oinarrituta) mendekotasun arina duten pertsona nagusientzat, etxean bezala bizitzeko aukera emanez. Bestetik, Eguneko Zentroa eta Laguntza-Zerbitzua duten etxebizitzak, ezintasun iraunkorra dutenentzat (neurologikoa, garunekoa edo is-tripua larrien paralisia...).

Badirudi, musika eskolaren etorkizuna erabakitzeko

agintaldia izango dela hurrengoa. Zuek Olaiturrin aldeko apustua egiten duzue?

Olaiturrin, kokatu nahi dugu musika-eskola berria (Arkitekto Lizaur kale aldera), erdigunean eta leku ezin hobean. Eraikin berrian, kalitatezko espazioa eta ekipamenduak jarriko dira herriko musikagileen eta musikazaleen eskura: txistulari-banda, musika-banda, Ganbara faktoria... Baliabide egokiak eskainita, guk haien lana samurtu eta sustatuko dugu. Ezin dugu ahaztu, besteak beste, haien lanari esker dagoela kultura bizi-bizi Oñatin.

Korriueneko eremuan kirolgune berria eratzea proposatzen du EAJK, futbol zelaia eta kanpoko igerilekuarekin, besteak beste. Egingarria al da epe motz-ertainean?

Proiektu handi samar guttien moduan, lehen egunetik oratu beharko zaio Korriueneko kirolguneari, gauzatu dadin. Oñatiarrok urteak

“
Garayko eremuan etxebizitzak eraikitzea da gure proposamena. Gutxienez %55 babes ofizialekoak eta %20 tasatuak. Alokairuan ere atera daitezke batzuk. Gazteei etxebizitzarako sarbidea erraztuko diegu

Musika eskola berria Olaiturrin kokatu nahi dugu. Erdigunean eta leku ezin hobean. Eraikin berrian kalitatezko espazioa eta ekipamenduak jarriko dira herriko musikagileen eskura

daramatzagu, esaterako, kanpoko igerilekuaren zain. Aspalditik edukiko genukeen Oñatin kanpoko igerilekua,

proposatu zenean, herritarrei entzun, eta, lehen unetik, proiektua abian jarri izan balitz. Egungo futbol-zelaiari ere irtenbidea eman beharko zaio, lehenbailehen.

Energia berriztagarrien aldeko proiektu alternatiboak sustatzeko asmoa ere aurreratu duzue. Adibidez?

Lehenik, udal-eraikinetan jardungo dugu. Bigarrenik, energia-autokontsumoa eta energia-sortze komunitario proiektuak osatzeko aukerak aztertuko ditugu, adibidez, Ekiolarekin bat eginez. Horretarako, besteak beste, energia berriztagarri gehiago lortzeko, Ur Jauziak udal-enpresaren etekinak berrinbertituko ditugu.

Bestelako egitasmorik?

Orain denbora asko ez dela, entzute-ariketa egin dugu Olakuan, Bidebarrietan eta plazan, oñatiarren proposamenak eta iradokizunak zuzenean entzuteko eta jasotzeko. Inkesta bat ere jarri dugu oñatiarren eskura, bete dezaten. Hala, gure programa herritarrekin elkarlanean osatuz joan gara, eta, besteak beste, arlo hauetako egitasmoak batu ditugu: tokiko ekonomiaren garapena, pertsonentzako zerbitzuak hobetzea eta osatzea, irisgarritasuna, mugikortasuna, partaidetza eta herri-kontsulta...

Nola ikusten dituzu M-28ko hauteskondeak?

Ilusioarekin bizi ditut, errespetaarekin ere bai eta gogoz. Uste dut Oñatiren etorkizuna geure proiektuetatik eraikitzen hasteko garaia dela. Esango nuke aldaketa-haizea dabilela Oñati aldean, eta lan egingo dugu, herritarrekin elkarlanean, maiatzaren 28ko hauteskunde-egunean aldaketa gauzatu dadin.

"Oñati anitza dela erakutsi behar dugu; politika ikusteko modu guztiek dutela lekua"

Aitziber Fernandez Azurmendi (Oñati, 1975) izango da PSE-EE alderdiaren zerrendaburua maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan. Duela lau urte boto gutxiren faltan geratu zen ordezkari lortzeko, eta berriro saiatu nahi du sozialisten ahotsa udaletxera eramaten, Oñati anitza dela erakusteko eta politika ikusteko era guztiendako lekua dagoela aldarrikatzeko. Artearen Historian lizentziatua da eta Gasteizko Michelin enpresan egiten du lan, kalitate teknikari gisa. Paseatzea eta bidaiatzea du gustuko. Animaliak ere asko maite ditu.

Berriz ere animatu zara PSE-EEren zerrendaburua izateko Oñatin.

Nire asmoa duela lau urteko bera da. Beharrezkoa da gure herrian ere politika normalizatzeko bidean aurrera egiten jarraitzea. Urte askotan, beldurraren ondorioz, nazionalistak ez diren aukerak ikusezin bihurtu dira. Erakutsi behar da Oñati anitza dela, askotarikoa, eta gure herrian politika ikusteko era guztiek dutela lekua.

Duela lau urte boto gutxiren faltan geratu zinen udal txean sartzeko. Arantza hori ateratzeko asmotan?

Aurreko kanpainan herriko jende asko hurbildu zen nire erabakiगतिक zorionak ematera. Horregatik bakarrik, mezezi izan zuen. Oraingo honetan lortu behar dugu herritar horiek beren ahotsa izatea udaletxean.

Gasteizen bizi zara egun. Jarraitzen al duzu Oñatiko egunerokoa?

Asteburu oro Oñatin egoten naiz gurasoekin. Herriaren errealitatea kalean jarraitzen

du; ezagutzen dudan jendearekin hitz eginez, eta askotan jende horrek gelditu egiten nau eta bere arazoak edo herriari eragiten dioten hainbat gairi buruz duen iritzia kontatzen dit. Askoz lotuago nago Oñatiko errealitatearekin Gasteizkoarekin baino.

Ordezkaritza lortuz gero, nola moldatuko zinateke gaien jarraipena egiteko?

Zorionez, legeak aurreikusten dituen tresnei esker, udal-bizitzan denbora gehiago emateko aukera izango nuke. Zure herriarekiko konpromisoa ez da gauero lo egiten duzun lekuaren arabera.

Nola ikusten duzu herria gaur egun?

Oñati asko aldatu da. Hori ezin da ukatu. Oñatiarrok gure herriaz harro sentitzeko arrazoi onak ditugu. Arazoa da, aldaketa asko inposatuta etorri direla, eta udal gobernuak ez direla proaktiboak izan. Uste dut Udala aldaketen kudeatzailea izan dela, sustatzailea izan beharrean.

Zein dira Oñatik dituen be-



Pobrezia energetikoaren errealitatearen inguruko diagnostikoa egitea beharrezkoa da, eta udalak modu proaktiboan jokatzeko laguntzak eskainiz

har nagusiak? Zein PSE-EE-ren proposamenak?

Oñatik etorkizuneko erronka askori egin behar dio aurre. Paradigma aldaketa bizitzen ari gara gizarte, kultura eta ekonomia esparruan, eta nazionalismoa ez da asmatzen ari trantsizio global horri erantzuten. Onartu behar dugu gure gizartea gero eta pluralagoa dela, eta aberastu egin behar dugu kultura berriek eta mundu ikuskera berriek ematen digutenarekin.

Bestalde, bizi dugun belau-naldi-aldaketak ere aldaketa sakona dakar. Ezin gara eskaintza kultural tradizional batean ainguratuta geratu. Entzun egin behar diegu belau-naldi berriei, mundu ikus-

kera berrietara irekiz.

Trantsizio ekologikoa da beste erronka nagusietako bat. Energia komunitateen garapenean sakondu behar dugu, eta udalak proaktiboan izan behar du, autokontsumoko instalazioak hedatzeko laguntzak diseinatu, eta hauen instalaziorako tramite administratiboak erraztuz. Beharrezkoa da herriko pobrezia energetikoaren errealitatearen diagnostikoa egitea, eta etxe horien efizientzia hobetzeko neurriak (leioak aldatzea, berokuntza sistema, elektragailuak...) bideratzea.

Nola ikusten dituzu M28ko hauteskundeak?

Esan bezala, herritar askok animatu nau aurkeztera, eta uste dut jende horrek guztiak ahotsa izan behar lukeela udaletxean. Oñatiko tradizio sozialista XIX. mendetik dator, bertan jaio zen Jose de Madinabeitia, Gazte Sozialistaren sortzaileetako bat, eta tradizio hori bizirik dagoela erakusteko unea da, ameskeria zaharren aurretik eskubide sozial eta laboralak jartzen dituzten oñatiarrak daudela.


RICARDO GUISADO-BALANZATEGI
 PP-ren alkategaia

"Geurea izango da EH Bilduren ereduaren benetako alternatiba"

Ricardo Guisado-Balanzategi izango da alderdi popularraren zerrendaburua udal hauteskundeetan. Kordoban jaio zen, baina badu loturarik Oñatirekin (bere amama Santxolopeztegiko Balanzategi baserrikoa zen) eta, hain zuzen, Balanzategitarren bizitzan oinarritutako nobela historiko bat idazten ari dela aurreratu digu. Reyes Korkostegiren bizitzari buruzko beste bat idazteko asmoa ere badu. Oñatirekin maiteminduta dagoela aitortzen du, eta ekarpen interesgarriak egin ditzakeela uste du, pertsona ekintzailea delako. Albaitaritzan lizentziatua da eta zientzia politikoetako gradua ere badu. Lan Ministerioaren menpeko fundazio bateko nazioarteko arduraduna da. Alderdi popularrak ilusioa ekarriko omen du Oñatiko udaletxera.

Zerk eraman zaitu Oñatin alkategai izatera?

Familiarekiko maitasunak. Nire aitak Balanzategi baserria ezagutzera ekarri ninduenetik, Oñatiko herria eta bere historia ezagutzeko gogoia eta jakin mina piztu zen nigan. Iñaki Zumalderen *Historia de Oñate*, Maria Rosa Ayerberen doktorego tesia, eta Oñatirekin lotura duen oro irakurtzen dut. Askok gustatzen zait Oñati, maiteminduta nauka, eta neure burua aurkeztu nuen alderdian. Ondo presatutako pertsona bat naiz, ekintzailea, oñatiar askoren moduan, eta uste dut ekarpen interesgarriak egin ditzake-dala herriarentzat.

Baina Madrilen bizi zara.

Ez dago arazorik. Azken bi urteotan sarri sarri etorri izan naiz Oñatira, eta ordezkaritza lortuz gero -ziur nago baietz-oso gustura etorriko naiz. Hau bokazio bat da, eta, badakizu, gustuko lekuan aldaparik ez. Ez da arazorik egongo gaien jarraipena egiteko eta plenoetara etortzeko. Udal aurrekontuen jarraipena egin dut, baita alderdien jokabideena ere,


eta, ildo horretan, kritikatu egin dugu, adibidez, EAJK aurrekontuan babestu izana; gobernuaren gestio ereduaren onartzen baduzu, zertan bereizten zara? Horregatik esaten dugu, geurea izango dela benetako alternatiba.

Nola ikusten duzu Oñati?

Askok gustatzen zait Oñati; natura, landa eremua... Ni albaitaria naiz, eta oso landazalea. Oñatik duen alderdi monumentala ere apartekoa da, eta jendea zoragarria. Guxien gustatzen zaidana pintadak dira; herria garbi egoten da, baina gure aurrekoek utzitako ondarea pintadekin zakartu eta hondatzea.... Jendeak libreki adierazteko eskubidea du, noski, baina XXI. mendean gaude, sare sozialak daude, komunikabideak...

Zaborrak zintzilikarioetan uztea ere ez zait gustatzen. Ez dut uste Oñatik eman behar duen irudia denik.

Oñatin nekazaritza eta abeltzaintzako fakultate bat sortzea proposatu duzu, baina udal baten eskumetatik haratago doa, ezta?



Maiteminduta nauka Oñatik. Guxien gustatzen zaidana pintadak dira, eta zaborra zintzilikarioetan uztea. Ez dut uste Oñatik eman behar duen irudia denik.

Bai, baina Mercado Zuazolari ere hori esan izan baliote... Borondate politikoa badago, bultzatu eta atera liteke aurrera. Euskal Herri osoan ez dago halako fakultaterik, eta zein leku hobea Oñati baino? Landa gunea hiltzen ari da. Ez baditugu baserriak eta landa eremua zaintzen, akabo euskaldunen arima.

Oñati gizateriaren ondare izendatzeko eskaera egitea ere proposatu duzu.

Bai, egingarria dela uste dut. Ubeda edo Merida bezalako herriak badira, eta ez dute Oñatik baino ondare gehiago. Gure arbasoek utzi diguten ondarea babesteko lagungarria litzateke, besteak beste.

Drone bidezko plataforma komertzial bat sortzea ere proposatu duzu, auzoei zerbitzu emateko, besteak beste

Bai, adineko jende asko bizi da herrigunetik urruti dauden auzoetan, eta halako zerbitzu bat oso lagungarria izan liteke, bai auzotarrentzat eta baita herriko komertzioentzat. Proiektu pilotu bat egitea proposatzen dugu.

Bestelako proposamenik?

Haurrak baserrian hazten dituzten familientzat urteko 2.000€ inguruko laguntza ematea; nekazaritza-abeltzaintzako ikasketak egin nahi dituzten gazteei laguntzak ematea; txakurrentzako egoitza bat, oporraldietarako, batez ere; estalitako paddel pistak...


Zer moduz euskararekin?

Uste dut EAEko kargu publikoek jakin egin behar dutela euskara. Konbikzioz esaten dut. Ikasten ari naiz, poliki poliki, eta espero dut Oñatin itzulpen zerbitzurik eskatu behar ez izatea. Ahalegina egiteko prest nago. ■



Hotz-Oñatiko kideak, laguntzaileak eta kanpainaren hasierako ekitaldian parte hartu zuten gaztetxoetako batzuk

MIGRAZIOA GUZTION ESKUBIDEA



Sentsibilizazio kanpaina jarri du abian Hotz-Oñatik




Arrazoi eta jatorri ezberdinetako migratzaileek bizi eta jasan behar izaten dituzten errealitate latz eta bidegabeak ikustarazi eta migrazioa guztion eskubidea dela aldarrikatzea da Hotz-Oñatik abian jarri duen kontzientziazio kanpainaren helburua. "Iaz ikusi genuen Europak eskuzabalik hartu zituela Ukrainako gerratik ihesi zetozen ukrainarrak, eta uste dugu hori dela jokabide egokia, baina uste dugu berdin jokatu beharko genukeela beste gerrate batzuetatik eta bestelako indarkeria eta jazarpen mota batzuetatik edo klima aldaketaren ondorioz sorlekua utzi beharrean aurkitzen diren pertsonekin ere", adierazi dute Hotz-Oñatiko kideak. "Behar diren kontrol neurriak ezarrita, baina atek ireki egin behar direla uste dugu, migrazioa

guztion eskubidea delako, ez batzuenak bakarrik".

Ildo horretan, gaur egun munduan gertatzen ari diren larrialdi humanitario ezberdinen eta migratzaileek pairatu behar izaten dituzten eskubide urraketa ugariren testigantzak (Yemen, Melilla, Sahara...) ikusi eta entzuteko aukera izango dugu Hotz-Oñatik antolatutako jardunaldietan. Apirilaren 29an eman zitzaizen hasiera jardunaldiei festa giroan, bertso, kantu eta kolorez jantzitako ekitaldian, eta datozen asteetarako hainbat ekitaldi (dokumentalak, hitzaldi-solasaldiak...) programatu dituzte, zein baino zein interesgarriagoa, migrazioaren eta migratzaileek bizi duten errealitate gordinaren inguruan gogoeta egiteko bidea emango digutenak (ikusi ondoko orrietan).





» MAIATZAK 10, KULTUR ETXEA, 19:00

EHIZA

Animazio film laburra + tertulia



Bego Vicario,
film laburraren
lantaldeko
koordinatzailea
eta Roberto Zabarte,
aholkulari teknikoa

EHUko Arte Ederren fakultateko irakasle, ikasle eta ikasle ohiek osatutako *Hauazkena* taldeak ekoiztutako animazio film laburra da *Ehiza*. Rafael Ruiz Balerdi artista donostiarrak 1969an egindako *Homenaje a Tarzán* film laburraren nolabaiteko jarraipena da, eta animalien harrapaketa analogia erabiliz, gaur egun gertatzen diren egoera lazgarriak eta giza eskubideen urraketa salatzen ditu: jazarpena, indarkeria, suntsiketa... 2020ko Kimuak katalogorako hautatu zituzten zazpi filmetako bat izan zen. Proiektzioaren ostean Bego Vicario (koordinatzailea) eta Roberto Zabarte (aholkulari teknikoa) oñatiarrarekin hitz egiteko aukera egongo da.



» MAIATZAK 17, KULTUR ETXEA, 19:00

HAIZEAREN EGIA

Film laburra + tertulia



Ekain Albite,
filmeko zuzendaria,
eta Garazi Hack Embare,
eusko-saharar
ekintzailea

Haizearen egia (*El susurro del viento*) film laburra Euskal Herrian bizi den Tahar, 20 urteko mutil saharar gaztearen bizipenak kontatzen ditu. Bere familia Tindouf-eko errefuxiatuen eremuan bizi da eta egun batean dei bat jasoko du bertatik: aita hilzorian dago. Saharar gaztea etxera itzuliko da eta, aitaren gorputza garbitzen duen bitartean (musulmanen usadioa) aurre egin beharko die iraganari, oroitzapenei eta kontraesanei. Gai izango al dira elkar ulertzeko? Eta elkarri barkamena eskatzeko? Proiektzioaren ostean Ekain Albite (zuzendaria) eta Garazi Hach Embarekin (sahararren eskubideen aldeko eusko-saharar ekintzailea) berba egiteko aukera egongo da.

Catalana Occidente **Mikel Egaña Urrutia**
Aseguruak


Eskatu aurrekontua kompromezu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Moxon 5, behea
638 16 79 84
mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

PINTURAS
URBIA
MARGOAK

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



» MAIATZAK 23, KULTUR ETXEA, 19:00

YEMEN

Egoera humanitarioari buruzko hitzaldia



Solidarios
sin
fronteras

Eva Erill
Solidarios Sin Fronteras
elkartearen sortzaile
eta zuzendaria

Yemen-en diharduen estatu mailako GKE bakarra da **Solidarios Sin Fronteras (SSF)** eta 8 urteko gerra eta bombardaketen ostean ekialde hurbileko estatuan bizi duten egoeraren berri emango du elkarteko sortzaile eta zuzendari Eva Erill-ek, streaming bidez. Egun planetan dagoen larrialdi humanitario handienetako bat da Yemenen bizi dutena, eta SSF-k bertan lanean dihardu larrialdi-laguntza emanez (elikagaiak, ura, mantak, higienerako produktuak...) desplazatutako familiei. Gainera, egunero gosaria ematen diete eskoletan 1680 neska-mutikori, beraien hezkuntza bermatzeko asmoz, eta etxeen berreraikuntzan ere laguntzen ari da.

» MAIATZAK 31, KULTUR ETXEA, 19:00

FRONTERA SUR

Melillako egoerari buruzko hitzaldia



Melillan diharduen
Solidary Wheels
elkarteko bi kide
etorriko dira Oñatira

Solidary Wheels elkarteko bi kide etorriko dira Melillan bizi den egoera eta han egiten duten lanaren berri ematera. Afrikako lurraldean dagoen Espainiako hiri autonomoan ematen den indarkeriaren (poliziala eta sistemikoa) berri ematen duen 'Marhaba' txotena azalduko dute. Melillako kasuan instituzioek migratzaileei ezartzen dien buro-errepresio eta oztopo administratiboetan gauzatzen da eskubide urraketa, Europar Batasunak milioika euro gastatzen dituen bitartean hesi metalikoak handitzen. Solidarity Wheels-ek laguntza juridikoa eta sanitarioa eskaintzen du, eta kontzientziazio lana egiten du, muga eremuetan ematen diren urraketez sentsibilizatzeke.



Ingelesko Akademia
Listening Speaking Reading Writing

Maite Aiestui Kortabarria
Irakaslea


www.4sgoiena.com

Arantzazuko Ama, 3 behea • 20560 OÑATI (Gipuzkoa)
943 53 36 57 • 4sgoiena@gmail.com

Gezalaga
Margoak

Tel. 616 277 999 - 616 388 396 | gezalagamargoak@hotmail.com

ehbildu



Maite duzun

Oñati

EGINGO DUGU.

OKKE

Oñatiko Kale Katu Elkartea eratu da

- Kaleko katuen **ugalketa kontrolatu eta ongizatea bermatzeko** Udalarekin elkarlanean jardun nahi dute, animalien babeserako legeak dioena betez

Kalean abandonatutako katuek bizi duten egoera penagarria ikusita, herritar talde batek OKKE (Oñatiko Kale Katu Elkartea) sortzea erabaki du, udalarekin elkarlanean HAI metodoa (Harrapatu, Antzutu eta Itzuli) aplikatu eta, modu horretan, katuen ugalketa kontrolatu eta ongizatea bermatzeko helburuarekin. Ahal den neurrian, katakumeak kaletik atera eta hauentzako harrera-etxeak aurkitzen ere saiaturiko dira. Elkarteko kideek eman digute ekimen honen inguruko informazioa.

Kaleko katuen babeserako elkartea sortzea erabaki du-zue. Zer dela eta?

Egunero ikusten ditugulako behar bezalako baldintzetan bizi ez diren katuak gure inguruan; edozein lekutan lo egiten, goseak, zabor artean janari bila... Horren aurrean, gutako batzuk, modu indibidualean, gure inguruan aurkitzen genituen katuei lagundu izan diegu, borondate onez. Baina gauzak modu antolatuan eta eraginkorrean egiteko gogoak elkartea sortzera eramán gaitu. Gaiarekin kezkatuta gauden zenbait herritar elkartu



ELKARLANA

«Iazko ekainean eusko legebiltzarrak onartutako legearen arabera, udaletxei dagokie katuen koloniak modu etikoan kudeatzea. Guk lanak erraztu egin nahi dizkiogu, gure denbora eta energia eskainiz»

gara, beste herri batzuetako elkarrekin hitz egin dugu, eta hauen gomendioari jarraituz, Oñatin ere elkartea ofizialki sortzea erabaki dugu.

Horretarako, elkarlanerako hitzarmen proposamena aurkeztu diozue Udalari, ezta?

Bai. Ezer baino lehen, argi geratu behar da, Eusko Legebiltzarrak iazko ekainean onartu zuen etxeko animalien babeserako legearen arabera, tokian tokiko udalak direla kaleko katu kolonien kudeaketaren arduradunak. Legearen arabera, udalek lankidetzaz sustatu behar dute animalien babeserako elkarrekin, eta horixe bera da guk proposatu eta aurkeztu dioguna. Elkarlanean jarduteko prest gaudela adierazi diogu udalari, kaleko katuen ugalketa kontrolatzeko eta ongizatea bermatzeko, HAI metodoa aplikatuz, legeak dioen bezala, eta beste udalerrri batzuetan (Arrasate, Bergara, Legazpi, Urretxu-Zumarraga...) egiten den moduan.

Zer da HAI metodoa?

Harrapatu, Antzutu eta Itzuli esan nahi du HAI metodoak. Horretarako, lehenengo eta behin kalean bizi diren katuen kolonien mapa edo errolda egitea komeni da, ahalik eta zehatzena. Koloniak identifikatu ostean, helburua da katuak antzutztea, desparasitatzea eta identifikatzea. Horretarako, katuak harrapatu egin behar dira, albaitariarengana eramán, eta ebakuntza egin ostean beraien koloniaratu bueltatu. Katu koloniak murriztu eta erregulatzeko modu eraginkorra da.

Urte askotan zuekin

© 688 764 299

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Jaione San Miguel Ugarte

MAPFRE
OÑATI





OKKE elkarteko kideetako batzuk

beharko luke, inguru horretan kontrolatutako katu kolonia bat dagoela adieraziz, eta gure elkarteko kideak soilik egongo liriteke baimenduta katuei jaten emateko.

Gutxi gora beherako mapa edo errolda bat ere egin duzue, dagoeneko. Zenbat kalekatu daude egun Oñatin?

OKKE elkartean gauden kideok ikusi eta ezagutzen ditugun kolonien arabera, une honetan 58 bat katu daude herrigunean eta Zubillagan. Baina, jakina, udaberrian eta udazkenean umealdiak izaten dituzte katuek, eta ezer egiten ez bada, kopuru horrek gora egingo du uste baino lehen.

Ahal den neurrian, katu horiek kaletik atera eta adopzioan ematen saiatzeko asmoa ere baduzue, ezta?

Bai. Adin batetik aurrerako katuekin zaila da, baina oraindik gizarteratu edo sozializatzeko moduan dauden katakumeentzat harrera-etxeak aurkitzen saiatuko gara, adopzioan eman eta ahalik eta katu gehien kaletik ateratzeko.

(jarraitzen du)

Lan horiek zeuek egingo zenituzkete?

Bai, OKKE elkarteko boluntarioak arduratuko ginateke katuak harrapatu, albatariarengana eraman eta berriz ere beraien kolonietan uzteaz. Herriko albatariarekin ere hitz egin dugu, eta hauek ere prest daude elkarlanean aritzeko.

Kolonia bakoitzeko katuentzako aterpetxoa eta janlekua egokitzea ere eskatzen duzue.

Bai, hotz-euritik babesteko aterpe-kasetatxo bat eta jateko lekua egokitu beharko litzateke kolonia bakoitzean, ahalik eta modu diskretuenean, udalarekin adostuta. OKKE elkarteko boluntarioak arduratuko ginateke jaten emateaz eta ingurua txukun mantentzeaz. Udalak kartel bat jarri

'HAI' METODOA

«HAI metodoa (Harrapatu, Antzutu eta Itzuli) da katu koloniak murriztu eta erregulatzeko modurik eraginkorrena»

ADOPZIOA SUSTATU

«Katakumeak eta sozializatzeko moduan dauden katuak kaletik ateratzen saiatuko gara, haven adopzioa sustatuz»



JANLEKUAK ETA ATERPEAK

Katu kolonia bakoitzeko janleku bat eta argazkikoa bezalako aterpe-kasetatxo bat jartzea proposatzen du OKKE-k, ahalik eta modu diskretuenean, eta udalarekin adostutako lekuetan. Udalak kartel bana jarriko luke, inguru horretan kontrolatutako katu kolonia bat dagoela adieraziz, eta elkarteko kideak arduratuko liriteke katuei jaten emateaz eta ingurua garbi mantentzeaz.

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnoak: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIETAKO
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxes: 943 71 62 40

Horrez gain, kontzientziario lana ere egin nahi dugu. Uste dugu ezjakintasun handia dagoela katuen inguruan; jendeak zikinarekin lotzen ditu, baina, azken batean, zaborretatik jatea beste aukerarik ez zaie geratzen, gure erruz, geuk abandonatu ditugulako. Gure gizarteak sortutako arazo bat da eta geuri dagokigu konponbidea ematea. Zorionez, legebiltzarrak onartu duen legeak dioen moduan, katuek sentitu eta sufritu egiten dute, eta, beraz, kalekoak izan arren zaindu egin behar ditugu.

Gure sare sozialak (*Instagram, Facebook...*) baliatuko ditugu kontzientziario lana egiteko, baina ikastetxeetara joateko prest ere bagaude, animaliei zor diegun errespetuaren inguruan gaztetxoekin berba egiteko, eta katua edo beste animaliairen bat zaintzeak erantzukizuna eta ardura eskatzen dituela ikusarazteko.

Inguruko beste herri batzuetan badituzte kaleko katuek modu etikoa kudeatzeko protokoloak, eta Oñatik ezin du beste aldera begiratu.

Zer eskatzen diozue udalari?

Urtero diru partida bat bideratu dezan katuen antzute, desparasitate eta identifikatze gastuetarako, eta pentsua erosteko. Horrez gain, katuei jaten ematen arduratuko diren OKKE elkarteak kideei dagokien akreditazio-agiria ematea, eta katuentzako aterpetxeak egokitzeko baimena ematea. Askoz gehiago ez.

Lehen esan dugun moduan, legez udalei dagokie lan hau egitea, eta gure asmoa da

"Laguntzaileak behar ditugu"



OÑATIKO KALE
KATU ELKARTEA

Oraingoz 32 bat lagun elkartu dira OKKE taldean, baina taldea irekia da eta gai honekin sentsibilizatuta dauden herritar guztiak dira ongi etorriak.

Lau lantaldetan funtzionatzeko asmoa du OKKE elkarteak: a) katuei jaten emateaz arduratuko dena; b) katuek harrapatuko dituen, albaitariarengan eramateko; c) katuentzako aterpe-kasetak txukun mantentzeaz arduratuko dena; eta d) katuentzako harrera-etxeak eta adopzioak bilatuko dituen. Beraz, talde hauetakoren batean

laguntzeko prest dauden herritarrak jar daitezela harremanetan: okkeonati@gmail.com edo **677985411 / 635748415** whatsapp kontuen bidez.

Apirilaren hasieran Barakaldon egin ziren 'Katualdiak' jardunaldietan egon ziren OKKE elkarteko kide batzuk, beste herri batzuetan egiten dutena entzuten eta ikasten, eta lanean hasteko prest gaude, udalarekin elkarlanean. "Azken batean, elkarren artean ondo koordinatzea da gako; udal zerbitzuen, gure elkarteko boluntarioen eta albaitarien arteko koordinazioa funtsezkoa da ekimen honek bere helburuak lor ditzan", adierazi dute OKKE-ko kideek.

«Beste herri batzuetan badituzte katuek modu etikoa kudeatzeko protokoloak, eta Oñatik ezin du beste aldera begiratu. Geuk sortutako arazoa da eta geuri dagokigu konponbidea ematea»

udalari lanak erraztea, geure denbora eta energia eskainiz.

Ze onura dakar katu koloniak modu honetan kudeatzeko?

Askok. Animalien ongizatea bermatzeaz gain, kaleko katuen kopurua kontrolatu eta osasun publikoko arazoak saihesteko aukera ematen du.

Ekonomikoki ere errentagarriagoa da udalarentzat,

ez duelako kanpoko enpresa bat kontratatu beharrik izango antzeko lanak egiteko.

Gainera, animaliak modu etikoa emateaz gain, herritarren artean erantzukidetasuna eta komunitate zentzua indartzen lagun dezakeela uste dugu. Azken batean, herriko bizi kalitatea hobetzen lagunduko du, gure ustez.



AURKITUTAKO KATUAK

Azken asteotan OKKE elkarteak kalean aurkitutako bi katuek dira goiko argazkietakoak: 'Zubi' (Zubillagan aurkitu dute) eta 'Martin' (San Martinen). Galdu edo abandonatutako katuek dira, antzutu daudelako biak ala biak. Jabeak, edo adopzioan hartu nahi dituzten herritarrak jar daitezela harremanetan OKKEekin.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.



- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



HEZKUNTZA KOOPERATIBA
EUSKALDUNA

Ate Irekiak

Maiatzak 19, 17:15-18:30



**0, 1 eta 2 urteko
haurrei zuzendutako
ekintzak**

- Esperimentazioa
- Eskulanak
- Dantza

Matrikulazioa 0-1 urte osoan zabalik



943 78 12 04 • txantxiku@ikastola.eus
(telefono arreta zerbitzua 8:00-18:00)

Irunberri, 1990: Arroilaren negarra liburua idatzi du Pako Aristi (Urrestilla, 1963) idazle eta kazetariak, Oñatiko Gure Bazterrak kultur elkartearen eskariz eta hauekin elkarlanean. Gogoratu, 1990eko ekainaren 25ean Jose Luis Hervás guardia zibila eta ETAko kide Susana Arregi eta Jon Lizarralde hil zirela Irunberriko arroilan. Azken bi hauek beren buruaz beste egin omen zuten, Espainiako Barne Ministerioaren arabera, baina Euskal Herrian ez zitzaion sinesgarritasun handirik eman bertso horri. Bada, hain zuzen, gertaera ilun haiek argitzeko asmoz idatzi dute liburua. Pako Aristik eman digu emaitzaren berri.



Pako Aristi, idazlea, Enkarna Maiztegi, Susana Arregiren ama, eta Gure Bazterrak taldeko Ander Lizarralde eta Itsaso Ugarte

PAKO ARISTI / Idazle eta kazetaria

"20 ordutan arroila Guardia Zibilaren esku egon arren, lortu dugu arrakalak sortzea haien kontakizunean"

1990eko Irunberriko gertaeren inguruko liburua idatzi du Pako Aristik, Oñatiko Gure Bazterrak taldearekin elkarlanean

Zergatik onartu zenuen liburu hau idazteko Gure Bazterrak taldekoek egindako enkargua? Ni gaztea nintzen Irunberrikoa gertatu zenean, 25 urte neuzkan: gertaera latz baten oroimena txertatua geratu zen nire baitan. Gure Bazterrak fundaziokoak etorri zirenean dena berritu zen niregan. Ohartu nintzen Susana nire adin berbera zeukala, German Rubenachek ere bai, eta pentsatu nuen zer bizitza ezberdinak eraman genituen. Nik Euskal herria maite nuen, haiek bezalaxe; nik euskara eta kultura lantzen nituen, haiek borroka armatua aukeratu zuten, Irunberri bukaera bortitza ekarri ziena.

Erronka bat izan zen niretzat: gure historia garaikidearen parte ilun bat argitzeko aukera. Gogoan dut kartzelan urte asko eman dituen lagunak esan zidana: gaur egun boligrafoa botere-etsuagoa da, armak baino.

Zein izan da liburu hau idaztearen helburua?

Garai hartan oso nahasia izan zen dena. Egunkarietan gezurak esan zituzten, kontrastatu gabeko zurrumurruek kontatu zituzten, eta soilik poliziak emandako informazioa erabili zuten. *Egin* egunkaria kenduta, beste inork ez zuen ikerketa independenterik egin. Eta jendeak



Herriko liburu dendetan dago salgai liburu 22€-tan

» **Berritu egin dugu kontakizuna, garbitu, eta modu klaruan zehaztea lortu dugu gertatu zen ia-ia guztia**

oraindik ere errepikatzen ditu egunkarietako gezur haiek. Guk sumarioa hartu dugu, lekuko berriak elkarrizketatu, eta gezur guztiak desmuntatu ditugu. Adibidez, esaten zen 127 gorri bat ikusi zutela arroilatik irte-ten zitzu bizian, mutil bat txofer, neska bat alboan, eskuan pistolarekin. Bada, sumario osoan lekuko batek bakarrik aipatzen du kotxearena: 'Kotxe txiki bat irte-ten ikusi nuen zitzu bizian. Barruan bi pertsona zihoazen, eta kopilotoaren aldean zegoenak melena zeukan'. Punto. Besterik ez. Ez du esaten 127a denik, ez gorria, ez pistolarik daramatenik. Berritu egin dugu kontakizuna, garbitu, eta modu klaruan zehaztea lortu dugu gertatu zen ia-ia guztia.

Besteak beste, gertaeren egunean Irunberriko arroilan ze-

biltzan bi turista holandarretako baten eta Gasteizko ume talde bateko zenbait lagunentzako jaso zuten lortu dugu, eta hori berritasuna da. Garrantzitsuak al dira testigantzak?

Lekuko berriak beti dira garrantzitsuak. Garai hartan Txemi Gorostiza familien abokatuak eskatu zuen holandarrek deklaratzera deitzea, baina uko egin zion instrukzio epaileak. Ikerketa zaila da aurrean Estatu bat daukazunean. Guk hiru lekuko klabe lortu ditugu:

1-Militanteak arroilara eraman zituzten kideak: Xabier Goldaraz eta Juan Jose Zubietak. Haiek esan digute zenbat egun zera-matzaten, zertara joanak ziren, eta hurrengo egunean, 26an, haiek jasotzera joan behar zutela, eta ez zeukatela kotxerik. Eta beste gauza asko.

2-Marian Husken, kazetari holandarra. Berak esan digu poliziak fusilekin tiro egin ziela militanteei, eta Nissanean sartu eta atzetik datozkiela arroilan barrura, eta 'poliziek ikusi gaituzte militanteekin hitz egiten. Jeepa gainera dator eta militanteak sasi artean ezkutatu dira'. Agente horiek epaileari esan zioten tiroketa eta berehala Zangozako ospitalera joan zirela, haietako bat zauritua zegoelako, ez zirela arroilan barneratu, arroila hutsik geratu zela ordu erdiz. Gezurra esan zuten: lehen unetik dakite non dauden ezkutaturik, errefortzuak itxoitea besterik ez daukate.

3-Gasteizko ume eta begiraleak: garbi diote arroilan hiru polizia-auto kamuflatu ikusi dituztela, eta Irunberriko aparkalekura iritsita 8 Nissan daudela kanpoan, eta helikoptero batek lur hartzen duela, bertatik polizia gehiago ateraz korrika. Arroila ez da hutsik geratu minutu bakar batean ere. Eta preso daukatzela garbia da: nola aginduko zieten bestela ume eta begiraleei arroila zeharkatzea, han hiru terrorista arriskutsu eta armatu suelto baleude?

Susana Arregi eta Jon Lizarralde suizidatu egin zirela esanez itxi zuen kasua Espainiako Barne Ministerioak

» **Deskubritu dugun datu garrantzitsua hau da: Entzutegi Nazionalak atzera bota zuela suizidioaren ideia, ez zuen onartu**

» **Gertaeren egunean arroilan zegoen turista holandar batekin hitz egin dugu. Bere egunean instrukzio epeaileak uko egin zuen pertsona hau deklaratzera deitzeari**

bere egunean, baina Euskal Herrian, oro har, ez zitzaion sinisgarritasun handirik eman. Zein da zure irakurketa?

Deskubritu dugun datu garrantzitsua hau da: Entzutegi Nazionalak atzera bota zuela suizidioaren ideia, ez zuen onartu. 1995ean, handik bost urtera German Rubenach epaitu zuten, Susanari bi tiroak berak eman zizkiola akusatuz, eta Entzutegiak errugabe izendatu zuen. Esan zuen: 'Fiskalak ez du suizidioaren froga bakar bat erakutsi. Ekarri duen guztia da usteak, susmoak, hipotesiak izan dira... froga sendo bakar bat ez'. Hau izugarria da: Estatuak bere baliabide guztiak erabilita, ez du lortu suizidioa frogatzerik. Entzutegi Nazionalak berak dio: ez da suizidiorik egon, frogarik ez dagoenez. Eta dio: 'Ez dakigu nola gertatu diren bi pertsona hauen heriotza ekarri duten zauriak'. Baina gero ez du abiatzen ikerketa bat Susanari tiroak nork eman dizkion argitzeko. German ez bada izan, aukera bakarra dagoelako: GAReko agente batek eman dizkio.

Guk bertsio ofiziala aztertu dugu, gezurrak detektatu ditugu, eta argazkiaren negatiboa zehaztu dugu. Benetan zer gertatu zen ongi fundamentatzea lortu dugu. Kasuari buruzko zertzelada zehatzak, ordutegiak, le-

kukoak eta abar liburuan jasota daude.

Gustura egindako lanarekin?

Talde lan zoragarria izan da, informazio eta datu pilo bat nire esku utzi duena. Nik forma literario eman diot, informazio guztia ordenatuz, garrantzizkoa zena aukeratuz, pista faltsuak baztertuz.

Garbi izan behar dugu Irunberriko Arroilako gertakizuna Euskal Herriaren historia garai-kidearen episodio garrantzitsua bat dela, inplikazio asko izan zituena, politika mailan, gizarte mailan, Amnesty Internationalek Londresetik Madrilgo gobernuari gutun bat idazteraino.

20 orduan arroila Guardia Zibilaren esku egon arren, lortu dugu arrakalak sortzea haien kontakizunean. Bertsio ofiziala moztorra bat da, egia ezkutatu nahi duen gezurrezko geruza bat, eta hori apurtu dugu. Egia agerian utzi dugu. Beste bertsio bat sortu dugu. Orain arte Corcuera Barne ministroak Kongresuan kontatu zuen bertsioa bakarrik existitzen zen. Hemen-dik aurrera bi bertsio daude. Historialariek etorkizunean kontsultatu ahalko dute gure bertsioa.

Saiatu naiz liburua modu atseginean irakurtzeko modukoa egiten, edozein irakurlerentzat. ■



Gualbi
asesores

Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6
T.: 943 781 648
onati@gualbiasesores.com

www.gualbiasesores.com

"Behingoz amaitu dugu dispertsioak sortzen duen sufrimenduarekin"

Euskal presoak Euskal Herriko espetxeetara hurbiltzeko prozesua osatu ostean egoera berriaren balorazioa egin du Oñatiko SAREK

Amaitu da orain dela 34 urte Espainiako Gobernuak euskal presoeri ezarritako dispertsio-politika.

Bai, ez da erraza izan, baina behingoz amaitu dugu dispertsioak sortzen duen sufrimenduarekin. Politika horrek presoen familia eta lagunengan izaten du eragin handiena. Hauek asteburuero, milaka kilometro egitera behartuta zeuden euren senideekin 40 minutuko bisita egin ahal izateko, horrek dakarren arrisku guztiekin.

Dispertsioak eragindako istripuek hainbat zauritu eta inoiz ahaztu ezingo ditugun 16 hildako eragin dituzte, tartean Nati Junko oñatiarra.

Helburu hau lortu ahal izateko ezinbestekoa izan da jendartea aktibatua eta mobilizatua mantentzea, ikusi besterik ez dago urte guzti hauetan egindako manifestazio jendetsuak eta, hemendik eskerrak eman nahi dizkizuegu urtez urte mobilizazio hauetan parte hartu duzuen guztiei. Ezinbestekoa izan da, halaber, eragile politiko, sindikal eta sozialekin egin dugun lana dispertsioaren aurkako aldarrikapenarekin bat egin zezaten.

Dispertsio-politika Espainiako Gobernuak 1989an onartu bazuen ere, lehengo ere Estatuko espetxeetan urrundutako euskal presoak izan ziren, eta horren ondorioz, 1969. urtean beste bi oñatiar, Anton Guridi eta Miren Zumalde senar-emazteak, Burgosko espetxean senide bat bisitaterik bueltan zetozela zirkulazio-istripu batean hil ziren. Gure oroitzapena eurentzat be.

1. gradua eta isolamendua ere atzean utzi ditugu.

Helburu hau lortuta, zeintzuk dira hurrengoak SAREntzat?



Gradu erregresioen aurka Oñatin egindako manifestazioa

Legeria arrunta aplikatuz gero, 110 euskal presok 3. graduan behar lukete, eta 17 preso gaixo larriek ere etxean behar lukete

Giza eskubideak unibertsalak dira eta ezin dira modu selektiboan aplikatu. Beraz, eskatzen duguna da euskal presoen kasuan aplikatzen ari den mendeku politika behingoz amaitzea eta etxerako bidean, gainerako presoeri aplikatzen zaien legeria arrunta euskal presoeri ere aplikatzea, salbuespenik gabe.

12 urte dira Aieteko ituna sinatu zenetik, eta bertan, presoen egoerari irtenbide bat emateko konpromiso irmoa azaldu zen.

Salbuespenezko politika honen adierazle dira:

- 5/2003 legean arautua, euskal presoentzat espresuki eraturako zaintza epailea Madrileko Auzitegi Nazionalan dago eta ez, gainontzeko presoek kasuan bezala, Bilbon edo Iruñean. Honen helburua erabakiak zentralizatzea eta euskal presoek irteera zailtzea da.

- 7/2003 legea: Bizi arteko zigorra.

Praktikan, honek suposatzen du lehengo 30 urteko zigorraldia beste 10 urte luzatzea, 40 urte arte, espetxe-onurak lortzeko eskubiderik gabe.

- 7/2014 legea: Euskal presoeri ez zaizkie kontuan hartzen Frantzian, arrazoi berdinetatik bete dituzten zigorrak. Birritan bete araziz.

- Gradu erregresioak: 3. graduan sailkatzeko baldintzak betetzen dituzten presoeri, Espetxe Tratamendu Batzordeak eta Eusko Jaurlaritzak emandako 3. gradua Madrileko Auzitegi Nazionalako zaintza epaitegiko fiskalak sistematikoki errekurritzen du, eta kalean dauden euskal presoak berriro espetxeratu dituzte.

- Preso gaixo larriek eta adin nagusikoek kartzelan segitzen dute.

Salbuespen neurri hauek bertan behera geratu ezker, 110 euskal preso 3. graduan behar lukete, %64a, eta 17 preso gaixo larriek ere etxean behar lukete, euren artatze egokia bermatzeko.

Gaur egun, zein da Oñatiko presoek egoera?

Joseba Arregi, legea eskuan hartuta, baldintza guztiak betetzen

ditu 3. graduan egoteko, zigorraren ¼ beteak bait ditu, eta 31 urte daramatza espetxean. Baina, Martuteneko espetxe Tratamendu Batzordeak bigarren aldiz emandako 3. gradua, Madrileko fiskalak, elkarbitza zangotrabatuz, errekurritu egin du berriro eta espetxera itzuli behar izan du Auzitegi Nazionalako espetxe zaintzarako epaitegi zentralak, fiskalak egin duen eskaera onartzen duen ala ez erabaki arte. Hilabeteak pasa daitezke.

Hau gutxi balitz, Josebak 77 urte ditu, adin nagusia da beraz, eta legeak dioen arauen kontra doa oraindik espetxean jarraitu behar izatea.

Gotzon Telleria Zaballako espetxean dago, 66 urte ditu, erbestean 37 urte eman zituen eta beste 6 urte daramatza preso. Sendaezinezko gaixotasun bategatik, etxean egon behar luke.

Hemendik aurrera ze urrats eman behar dituzue?

Konponbidea eta bakea erakitzeko beharrezkoa da euskal presoek auzia konpontzea, eta orain arte bezala, jendartea aktibo mantentzen saiatuko gara, adostasunak eta elkarlanak sustatzea ere beharrezkoa izango da etxerako bidea helburua lortu ahal izateko.

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industrialia
- | Automatizazio eta Robotika Industrialia

Espezializazio ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

» Oñati gestio
heziketa

Goi Mailako

Heziketa Zikloak

- | Salmenten Kudeaketa
- | Administrazio eta Finantzak

#LanerakoGertu

Eman izena!

MGEP: 664298683 // 664298704
Oñati gestio heziketa: 943718009



INSKRIPZIO-DATAK: Maiatzak 8tik 26ra

mondragon.edu/lanbideheziketa



JOSE DE AZPIAZU MUSIKA ESKOLA
2023-2024 IKASTURTEA
MATRIKULA ZABALIK

MAIATZAREN 15etik 26ra

www.jazpiazumusikaeskola.com
web orrian

2 urterekin hasi eta adin mugarik gabe

Informazio gehiago:
idazkaritza@jazpiazumusikaeskola.com
edo 943 78 31 74 telefonoan



OÑATI
dabilen herria

Elorregiko autobus geltokia egokitze lanak lizitaziora atera ditu Udalak

> Mankomunitateak hartuko du bere gain geltoki berriaren mantentze lanen ardura

San Prudentzio-Elorregiko autobus geltokia hobetzeko lanen lizitazio prozesua abiaraztea erabaki du Oñatiko udalak, 168.216 euroko (BEZ kanpo) oinarritzko aurrekontuarekin. Apirileko



zenbakian aurreratu genuen moduan, Oñati, Arrasate eta Bergarako udalek hitzarmena adostu dute Gipuzkoako foru aldundiarekin Elorregiko geltokian hainbat hobekuntza lan egiteko eta, ustekaberik ez bada, ekainean hasiko dira lanak. Taper Arkitektura taldeak idatzitako proiektuaren arabera, markesina berria, komuna, bizikletentzako aparkalekua, informazio pantaila eta argiztapen fokuak ipiniko dituzte Elorregin. Prezioa (80 puntu) eta berme epea (20 puntu) izango dira kontratua esleitzeko irizpideak. Foru Aldundiak ordainduko du lanen kostuaren %60, eta gainerakoa hiru udalen artean.

MANTENTZE LANAK

Elorregin egokituko den azpiegitura berriaren mantentze lanak egiteko akordioa ere adostu dute Oñati, Arrasate eta Bergarako udalek Mankomunitatearekin, eta, hala, Debagoieneko Mankomunitateak hartuko du bere gain azpiegitura berria mantentzeko eta geltoki inguruko zerbitzuak (hondakinen bilketa, komunaren garbiketa....) kudeatzearen ardura.

Kiroldagiko gimnasia eta fitness zerbitzua lizitaziora atera du Udalak

Zubikoa kiroldegian eskaintzen diren geletako gimnasia eta fitness jarduerak gidatuen zerbitzua antolatu eta emateaz arduratuko den enpresa kontratatze prozesua abiaraztea erabaki du Udalak. Kontratuaren hasierako iraupena bi urtekoa izango da (2023-2024), baina, urtez urte, beste bi urtez luzatzea aurreikusten da. Guztira lau urte.

Lizitazioaren oinarritzko aurrekontua 83.217 eurotan (BEZ barne) finkatu da, eta kontratuaren balio zenbatetsia 354.191 eurokoa da (barne luzapena eta, beharra balego, balizko zerbitzuaren gehikuntzaren %10a), BEZ gabe.

Kontratua esleitzeko garaian, kalitate irizpideak (52 puntu) hartuko dira kontuan (eskaintza teknikoa eta zerbitzuaren antolaketa, hobekuntza plana, orientazio zerbitzua...) eta baita eskaintza ekonomikoa ere (48 puntu). Enpresa interesatuek maiatzaren 19ra arteko epea dute proposamenak aurkezteko.

Eltzia taberna-kafetegiaren ustiaketa lizitaziora



Maiatzaren 12ra arteko epea dago Eltzia tabernaren ustiaketa-lizitazioan parte hartzeko proposamenak aurkezteko. Udalaren webgunean daude ikusgai oinarriak. Besteak beste, tabernaren gutxieneko egutegia eta ordutegia zehazten dira bertan. Oinarritzko lizitazio prezioa 200 eurotan ezarri da, hileko. Kontratua bi urterako izango da, beste bi urtez luzatu ahal izango dena. Interesa dutenek instalazioak ikusteko aukera ere izango dute maiatzaren 4an (15:00). Aurrez izena eman behar da (partaidetza@onati.eus / 943780411).

Udalaren Landa Garapena sailaren dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik

Nekazaritza ustialekuak modernizatzeko eta, oro har, landa inguruneke jarduerak sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Sei dirulaguntza lerro bereizten dira: nekazaritza ustialekuak modernizatzeko (22.700€), bertako produktuak merkaturatzeko (21.000€), nekazaritza erabilerako ura ordaintzeko (700€), putzu septikoak garbitu eta instalatzeko (3.405€), landa-auzoetako ermiten argindar kostua ordaintzeko (2.270€), eta baso-bide pribatuak eraiki eta hobetzeko (17.025€). Informazio gehiago: www.onati.eus/tramiteak/dirulaguntzak.



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60

✉ etxian@etxian.net
www.etxian.net  



Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com



TXAKURRAK LOTUTA eramateko eskaria egin dute auzo-alkateek

Udal mailako auzo-alkateen foroak kezka adierazi du hainbat herritarrek txakurra lotu gabe eraman dutelako auzo-bideetan. Horrek hainbat arazo sortu izan ditu larreetan dauden animaliekin, oro har, eta ardiekin konkretuki; txakurak segika jolasean joan eta abereak aztoratzea, edo hozka egitea hain zuzen ere. Ildo horretan, gogorarazi nahi dute, Gipuzkoako Mendien 7/2006 Foru Arauaren 62.2c artikulua arabera txakurak lotuta eraman behar direla.

Emakumeen Etxea eraikitzeke parte-hartze prozesua errotze fasean mugildu da

» Etxearen barne banaketa adosteko beste hiru saio egingo dira uda aurretik

Oñatiko **Emakumeen Etxea Eraikitzen** parte-hartze prozesua errotze fasean mugildu da. Etxea izan daitekeenaz eta inguruko erreduez berba egin da aurreko faseetan, eta orain Oñatiko Etxea definitzeari eta erabakiak hartzeari ekingo zaio.

Apirilaren 25ean egin zen mahai-inguru batekin eman zitzaion hasiera fase honi. Egitasmoaren hasieran Emakumeen Etxea izango denaren oinarrian ezarri ziren lau printzipioen inguruan (feminista, komunitarioa, interseksionala eta ahalduntzailea) egin zuten gogoeta. Lau oinarri horiek definitzea zen helburua, etxearen sustraiak finkatzeko eta denok kode edo klabe berdinean hitz egiteko.

Soraya Ronquillok (Bidez Bide elkarte), Olatz Dañobeitiak (Foru Aldundiko parte-hartze teknikaria), eta Onintza Adresek (Oñatiko udaleko parte-hartze teknikaria) parte hartu zuten mahai-inguruan. Ronquillok adierazi zuen begirada interseksionalaren indarguneetako bat dela zapalkuntza guztiak ikusarazten dituela, eta gizarte-eragile gisa aitortzen gaituela helmugako gizarte honetan.

Dañobeitiak norberaren ahalduntzetik komunitatearen boteretzarainoko ibilbidea marraztu zuen: "Batetik ahalduntzea dugu (norberak gaitasunak lantzea); hurrengo urratsa da jabetzea (norberak dituen zailtasunen



atzean arrazoi estrukturalak daudela ikustea); eta hirugarrena da boteretzua (guztiok elkartu eta gauzak aldatzen saiatzea).

Andresek udal politiken garrantzian jarri zuen azpimarra. "Eragin zuzena izan dezakete komunitea indartzen edo ahultzen. Administrazioak ardura du harremanak ahalbidetzeko aukerak eskaintzen.

HURRENGO SAIOAK

Errotze fasearen baitan beste hiru saio egingo dira udara aurretik. **Maiatzaren 11** eta **31n** eta **ekainaren 21ean** izango dira saioak, eta emakumeen etxearen barne banaketa adostea izango da helburua. Udalak kontratatu duen JUNTURA kooperatibako kideen laguntzarekin Emakumeen Etxearen erabileren, honek sustatuko dituen harremanen edo dinamiken araberako espazioak diseinatuko dituzte.

Informazio gehiago labur.eus/emakumio-netxia atarian, Instagram kontuan edo udaleko Berdintasun departamentura deituta edo idatzita (berdintasuna@onati.eus).

ai arizmendi ikastola

PRO

AURREMATRIKULA

LAN BIDE HEZIKETA

Maiatzaren 8tik 26ra

IZENA EMAN!

Gizarte eta kirol animazioaren irakaskuntza

Osasun larrialdia

Mikroinformatika sistemak eta sareak

Erizaintzako zaintza osagarriak

EROSKETA BONUEN kanpaina berria abian

- » Udalak 15.000 euro emango ditu bonotan
- » Maiatzaren 3tik 17ra eskuratu ahal izango dira bonoak, pertsonako 50€ gehienez

Erosketa bonuen bidezko bi deskontu kanpaina egingo ditu aurten Udalak: udaberriaren bat, eta udazkenean bestea, bakoitza 15.000 euroko aurrekontuarekin.

Udaberriko kanpaina maiatzean izango da.. Herritarrek **hilaren 3tik 17ra** arteko epea izango dute erosketa bonuak eskuratzeko. Ohi bezala, bi modu egongo dira horretarako, *online (oñati.bonoak.eus* web aplikazioaren bidez) eta *offline* (kanpainara atxikitako saltokietan).

%20ko DESKONTUA

Pertsona bakoitzak gehienez 50€ eskuratu ahal izango ditu bonuetan, eta erositako bonuei %20ko deskontua aplikatuko zaio; hau da, 50€-ko bonu batek 40€-ko kostua izango du. Bonuak kontsumitzeko epea abenduaren 7ra arte luzatuko da, bai udaberriko kanpainan eta baita udazkenekoan ere.

Tokiko komertzio, ostatu eta zerbitzuetan kontsumitzearen garrantziaz sentsibilizatzea, eta kontsumo arduratsua sustatzea da kanpaina hauen helburua. Bi kanpainak kontuan hartuz, guztira 150.000 €-ko kontsumoa sustatu nahi da.



► **Oñati.bonoak.eus** web aplikazioan edo kanpainari atxikitako saltokietan eskuratu ahal izango dira bonuak

► **16 urtetik gorako** herritarrek soilik eskuratu ahal izango dituzte bonuak

Pertsona LANGABETUAK kontratatzeko dirulaguntzak

Langabetuak kontratatzen dituzten 50 langiletik beherako herriko enpresei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratatu den pertsonak Oñatin erroldatuta egon behar du eta Lanbiden izena emanda. Ezin du ahaidetasunik izan enpresaren jabearekin edo zuzendaritzarekin.

Lan kontratuak mugagabeak edo, gutxienez, 6 hilabeteko iraupena duten aldi baterakoak izan behar dira. Gutxienez %50eko lanaldikoak. Kontratuen hasiera data 2022ko uztailaren 1a eta 2023ko ekainaren 30a bitartean izan behar da.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

- Kontratua mugagabea eta lanaldi osoa bada: **1.300€**.
- Aldi baterako kontratuak 6 hilabeteko iraupenarekin, lanaldi osoan: **1.000€**
- Kontratututako pertsona emakumezkoa bada, **300 €**-ko gehikuntza.
- Denbora partzialeko kontratuetan lanaldiaren proportzioan.
- **%30eko gehikuntza**, kolektibo hauetakoren bateko pertsonak kontratatzen direnean: Diru Sarrerak Bermatzeko Errentaren (DBE / RGI) hartzaileak; 35 urtetik beherako pertsonak; 55 urtetik gorako pertsonak; epe luzearako langabeak

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eus).



ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64



PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserriko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

GIZARTERATZE eta LANERATZE prozesuetatik datozen pertsonak kontratatzeko dirulaguntzak

Gizarte bazterkeria arriskuan edo desabantaila egoeran dauden eta lan-merkatu arruntean sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak kontratatzen dituzten enpresei zuzendutako dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Kontratzen den pertsonak Oñatin erroldatuta egoteaz gain, gizarteratze eta laneratze prozesua amaitu berrian egon behar du, eta laneratzeko enpresa baten bidez bideratuta.

Kontratu mugagabeak edo, gutxienez, 2 hilabeteko iraupena duten aldi baterako kontratuak izan behar dira (%50eko lanaldia, gutxienez). Kontratuen hasiera data 2022ko uztailaren 1a eta 2023ko ekainaren 30a bitartean izan behar da.

DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOAK

- Kontratu mugagabeak eta 6 hilabete edo gehiagoko aldi baterakoak, eta lanaldi osokoak, badira: **3.000€**;
- 2 eta 6 hilabete arteko aldi baterako kontratuak badira, lanaldi osokoak: **1.500€**.
- Denbora partzialeko kontratuetan, jardunaldiaren proportzioan.
- **%30eko gehikuntza** aplikatuko da kontratatutako pertsona emakumea bada; 55 urtetik gorakoa bada.

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko. Informazio gehiago Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eus).

ENPRESA BERRIAK sustatzeko dirulaguntza deialdia egin du Udalak

Sortutako lanpostuengatik eta negozio-lokalaren alokairuarentzako dirulaguntzak ematen ditu Udalak

Enpresa berrien sorrera sustatzea helburu duen dirulaguntza deialdia egin du Udalak. Hona hemen, laburbilduta punturik garrantzitsuenak.

ONURADUNAK

Oñatin enpresa jarduera berri bat sortu edo, eskualdaketa bidez, jarraipena ematen dioten pertsona fisiko eta juridikoek jaso ahal izango dituzte laguntza hauek.

BALDINTZAK

2022ko urtarrilaren 1etik 2023ko ekainaren 30era bitartean alta emandako jarduerak izatea. Ekonomia Jardueren Gaineko Zergan Oñatin alta emanda egotea, eta 10 langile baino gutxiagokoa izatea.

DIRULAGUNTZA MOTAK ETA ZENBATEKOAK

a) Sorturiko lanpostuengatik laguntza:

- Sortutako lanpostu bakoitzeko **1.500 €**
- Lehen sektoreko jarduera bada, **3.000 €** lanpostuko
- Sustatzailea emakumea denean, sorturiko lanpostuari dagokion dirulaguntza **%30ean gehituko da**

Baldintza: Sustatzailea Oñatin erroldatuta egotea, 6 hilabeteko antzintasunarekin, gutxienez.

b) Merkataritza sektoreko negozio-lokalen alokairuentzako dirulaguntza

- Lehenengo urteko alokairu gastuak (**2.500 €**, gehienez).

Txikikazko edo hiri-merkataritza jarduerari lotutako zerbitzuak izan behar dira. Ostalaritzako jarduerak (ostatuak, tabernak, jatetxeak, kafetegiak...) laguntza mota honetatik kanpo geratuko dira. Lokala Oñatiko hirigunean kokatuta egon beharko da.

ESKAERAK

Azaroaren 30era arteko epea dago eskaerak aurkezteko, udaletxeko HAZ bulegoan, Internet bidez (www.onati.eus) edo posta arruntez. Informazio gehiago udaleko Sozioekonomia sailean (943003198 / enplegu@onati.eus).



Elikagaien bilketa berezia egingo da maiatzaren 12-13an

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak dei egiten die herritarrei parte hartzera, beharrak asko handitu direlako azken hilabeteetan

Gipuzkoako Elikagaien Bankuak SOS deia luzatu du. Azkenaldian jasaten ari garen inflazioaren ondorioz asko handitu dira beharrak eta, ondorioz, elikagaien bankuko biltegiko apal asko ia hutsik daude. Horregatik, maiatzaren 12-13an bilketa berezia egitea erabaki du, eta dei egiten die herritarrei laguntzera, behar handia dagoelako.

Oñatin ACESMA elkarteak koordinatuko du bilketa, eta herriko janari denda guztietan batuko dituzte elikagaiak. Elikagaiak ez ezik, txeke edo janari-bonoak emateko aukera ere jarriko da herritarren eskura.

ACESMA elkarteko koordinatzaile Ibis Rodriguezek adierazi du Oñatin ere igarri dutela premia edo beharren igoera. Gaur egun 400 onuradun (141 familia) dituzte Oñatiko elikagaien bankuan, sekula baino gehiago, eta dei egiten die oñatiarrei ahal du-



Oñatin, ACESMA elkarteak koordinatzen duen elikagaien bankuak 400 onuradun (141 familia) ditu egun, inoiz baino gehiago

ten neurrian laguntzera.

Oñatiko elikagaien bankuan ostiralero jasotzen dute Gipuzkoako Elikagaien Bankuak Bergaran daukan biltegitik azken minutuko elikagaiak (jaki freskoak), eta hilean behin produktu ez galkorak. Beraz, Oñatirentzat ere oso garrantzitsua

da Gipuzkoako Elikagaien Bankuak antolatzen duen elikagai bilketak.

ACESMA elkarteak boluntarioak ipiniko ditu Oñatiko janari-denda guztietan. Laguntzeko prest dauden herritarrek Ibisekin harremanetan jar daitezke (688 846 293).

Udala eta Eltziaeren arteko lankidetzak hitzarmenaren luzapena eta dinamika berria

Udalaren eta Eltziaeren arteko lankidetzak hitzarmena lau urterako luzatu da. Horrez gain, Eltzian dinamika berri bati ekiten diru-laguntza ere jaso da bertan, Eltzia dinamizatu, biziberritu harreman-sarea sendotu eta egitasmoa herriri irekitzea helburua izango duena.

Udalaren eta "Eltzia, herrisormenaren etxea elkarte soziokulturala Elkartearen" lankidetzak hitzarmena beste lau urtez luzatzea onartu zen aho batez apirilko osoko bilkuran. Luzapen horrek Oñatiko Udalaren eta herriko hainbat talde eta kolektiboren arteko lankidetzak-esparruari eusten jarraitzeko aukera eskaintzen du.

Aurtengoan, gainera, beritasun batekin dator. Eltzekideek eurek ELTZIA biziberritzeko landu dituzten ideiak eta ekintzak oinarri, dinamika berri bat martxan jartzeko diru-laguntza jasotzen da hitzarmenean. Proiektu soziokultural horren baitan dinamizatzaile bat izango du Eltzia eta hainbat helburu izango egitasmoak: eltzekideen arteko harremanak sendotzea, Eltzia proiektu amankomun gisa biziberritzea eta Topagunea eltzekideen eta herritarren elkargune bilakatzea, besteak beste. Horretarako, urtean zehar hainbat dinamika, kontzertu, ekitaldi, eta abar antolatuko dira, eta Eltzia Eguna ere berreskuratuko da. Ekainean hasiko dira martxan eta herrira begirako ekintzak irailetik aurrera izango dira.

Argentinan eta saharar errefuxiatuen kanpalekuetan dituen proiektuei eutsi egingo die Hermansoloñak

Kale Zaharreko arropa biltegia iazko urrian itxi bazuen ere, Hermansoloña GKEak jarraitu egingo du Argentinan eta sahararren errefuxiatu kanpalekuetan dituen elkartasun proiektuekin lanean. Hala, iazko urtean 41.083 euro bideratu zituen Argentinan eta Tinduf-eko (Aljeria) kanpalekuetan martxan dituen proiektu sozial eta humanitarioetara, eta aurten ere bide berean jarraitzeko asmoa du.

Oñatiko udala da finantzazio iturri nagusia (iaz 21.611€) Hermansoloñarentzat. Gainerakoa, enpresetatik (5.100€), bazkideengandik (9.760€) eta beste donazio batzuetatik (1.950€) lortu zuen 2022an.

Argentinako eta Tinduf-eko proiektuez gain, Caritas, Acesma, CEAR-Larraña, Oñatiko sahararren komunitatearekin eta Hotz-Oñatirekin lankidetzan dihardu Hermansoloñak, migratzaileei eta beharra duten herritarrei laguntzen.

Urrezko Zozketarako txartelak salgai

Gurutze Gorria hasi da Urrezko Zozketarako txartelak saltzen. Bailarako hainbat denda, taberna eta jatetxetan eskura daitezke, edo Gurutze Gorriko boluntario sarearen bidez ere bai. Zozketa hau finantzazio iturri garrantzitsua da Debagoieneko Gurutze Gorriarentzat eta, beraz, parte hartzera animatu nahi dituzte herritarrek. Uztailaren 20ra arteko aukera egongo da txartelak erosteko.



Bidebarrieta Kalea 11 behea, Oñati



943772265 - 688690141



xarmaestetika1@gmail.com



xarma_estetika

AURPEGIKO TRATAMENDUAK

Garbiketak

Irrati-uhinen maiztasuna

Liftinga + betileak tintatzea

GORPUTZEKO TRATAMENDUAK

Gorputz birmoldatzailea

Irrati-uhinen maiztasuna

Presoterapia infragorriekin

Elektroestimulazioa

DEPILAZIOAK

Trionda diodozko laserra

Argizaria / Roll-on

MASAJEAK





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlerraren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñatiko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñatiko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Eskerrik asko Oñati!!

Leire Etxeberria Elorza (Hotz-Oñatiren izenean)

Otsailaren hasieran milaka hildako, zauritu eta etxerik gabeko utzi zituen lurrikara batek Turkian eta Sirian. Hotz Oñatitik laguntza eskatu genizuen kaltetuei laguntzeko eta diru, janari, manta eta neguko arropa bilketak jarri genituen martxan.

Diru-bilketan 13.000€ baino gehiago jaso ditugu, Asociación de Apoyo al Pueblo Sirio (AAPS) erakundera bidali da jasotako diru guztia.

Janari-bilketan 3.210 kilo (4 palet) elikagai batu genituen. Jasotako janaria Zaporeak GKEren bidez bideratu da Turkia eta Siriara.

Manta eta neguko arropa bilketan 12 palet baino gehiago bildu ziren. Jasotako arropa DYA Bizkaia elkartearen bidez Turkia eta Siriara bideratzea zen asmoa, baina erakunde honek arazoak izan ditu jasotako materiala bidaltzeko, Turkiako enbaxadarekin adostuta zeukaten bidalketa ezin izan dute egin. Hori dela eta, jasotako materialari beste irteera bat eman zaio, beti ere, errefuxiatuei bideratuta:

- 3 palet manta En Red Sos erakundearekin bideratu zaizkio, Greziara eramango dituzte, bertako errefuxiatuentzat.
- 32 kaxa neguko arroparekin Ukrainara bideratu da.
- 8 kaxa neguko arroparekin Irungo Harrera Sarera bideratu da (Txantxiku ikastolaren bidez).
- 9 kaxa manta Bilboko Ongi etorri errefuxiatuak erakundera bideratu da, Bilbon kalean bizi diren errefuxiatuentzat.

Mila esker zuen eskuzabaltasunarekin hau posible egin duzuen Oñatiar guztioi!

Eta bilketan lagundu duzuen guztioi:

- Janari bilketan parte hartu duten dendak: Errekaldeko denda, Kooperatiba, Eroski Arantzazu, Eroski Errekalde eta Super BM.
- Kaxak eman dizkiguten enpresak: Cartonajes Arregui eta Ulma.
- Lokalak utzi dizkiguten familiak (Ezpeleta eta Zubia familiak).
- Bilketa eta bidalketetan lagundu duzuen boluntarioak.

Mila mila esker Laguntzen Laguntzeagatik!

Gazte langileon pobretzea borrokatu

Roberto Posada, Gazte Koordinadora Sozialistako kidea

Gaur egun bizi dugun krisi testuinguruak erabateko ziurgabetasuna sortu du. Izan ere, ofentsiba ekonomiko eta politiko baten aurrean aurkitzen gara. Ez dugu banketxe handietako jaberik ezta enpresa handietako zuzendaririk gerrikoa estutzen ikusiko, egiazki, pobretze orokorra ematen den honetan, langileok gara ondorioak pairatzen ditugunak.

Prezioek gora egin duten honetan gazte langileon soldatak izoztuta gelditu dira, pobretzea are eta gehiago areagotuz. Horren da latza egoera, non hainbat etxetan miseriaren aurpegi gordinena bizitzen ari diren.

Pobretze honen ereduak milaka izan daitezke, baina, hurrengo lerroetan Oñatiko gazteok hau nola pairatzen dugun adieraziko dut:

Kiroldegiaren tasen garestitzea eman da, hauek %25 batean igo direlarik, kirolerako eta, hein batean, sozializazio esparru garrantzitsu baterako irigarritasuna zailduz.

Garraio publikoaren egoera kaskarrak autoarekiko dependentzia areagotzen du, erregaiek izan duten %50eko igoerak herritik kanpo irten behar direnei mugikortasuna mugatuz.

Etxebizitzaren auziari dagokionez, 700 etxe huts inguru daude herrian eta gazteon artean orokortua dago emantzipatzeko ezintasuna, honetarako batazbesteko adina 30,2 urtetan kokatuz. Honen eragile dira, besteak beste, alokairuek azken urtetan izan duten %41eko igoera edo gasaren zein argiaren garestitze orokortua.

Elikagaiei dagokionez, %14ean hazi da hauen prezioa eta aipatzekoa da BEZA jeitsi zaien elikagaien %40ak prezioaren igoera bat jasan duela.

Egoera honekin amaitzeko ezinbestekoa da dominazio politiko eta ekonomikoa oinarri dituen sistema kapitalistarekin amaitzea, horretarako bide bakarra antolakuntza komunista izanik.

Gazte langileon pobretzea borrokatu!



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com

IRITZIA

OSAKIDETZA HILZORIAN?

✉ Aitor Atxa / Astintzen dinamika

Zer da Astintzen?

Astintzen Euskal Herriko testuinguru soziopolitikoan gertatzen ari diren eta gizartearen gehiengoarentzat interes kolektibokoak diren gaiak eta problematikak gizarteratzen dituen elkargunea da, Oñatiko hainbat gizarte-eragilek osatutakoa.

Oinarriko eskubide sozial eta demokratikoak arriskuan dauden garaiotan (pentsioak, etxebizitza, osasuna, adierazpen askatasuna...), zenbait gairen inguruko eztabaidak plazaratzea eta hausnarketa espazioak sortzea da Astintzenen jarduna, arazo eta erronken aurrean alternatiba jasangarriak proposatzeko. Horretarako, herritarren bizimoduan inpaktu zuzena duten jardun politiko ezegokiak salatzea (ustelkeria, ate birakariak, pribatizazioak...) da abiapuntua.

Osakidetzaren egoera

Osasun-arreta, lehen aldiz, EAEko biztanleen bigarren kezka garrantzitsuena bihurtu da, inflazioa eta bizitzaren garestitzearen atzetik. Kanean ere ikusten da euskal jendarteak Osakidetzaren bilakaeraren inguruan duen kezka eta ezinegona gorantza doala. Honen adibide garbia da pasa den hilean milaka pertsonak erkidegoko hiriburuak hartu izana EAJren gobernua gauzatzen ari den Osakidetzaren desegitea eta pribatizazioa salatzeke.

Gai honen inguruan dagoen kezka kontuan hartuta, Astintzen dinamikaren baitan, martxoan Osakidetza hilzorian mahai ingurua antolatu zen Kultur Etxean. Bertan, Markel Brouard —aldi bateko familia medikua Enkarterriko ESLan eta Lehen Arreta Arnasberritzen plataformako kidea— eta Jesus Oñate —LAB Osakidetzako arduraduna— izan ziren gonbidatu bezala. Mahai inguruan askotariko gaiak jorratu ziren: Osakidetzaren gaur egungo egoera orokorra, nola dagoen egituratuta, EAJren eskutik gauzatzen ari den pribatizazioa, jasaten ari den gainbehera, profesionalen ihesa, lehen arretaren egoera...

Jarraian, gonbidatuek egin zituzten ekarpen azpimarragarri batzuk:

Osasunaz hitz egiten denean, kontuan hartu behar da ez dela soilik asistentzia medikuak ematen duena, ezta ere pertsona bakoitzaren biologiak zehazten duena (euren pisua izan arren). Osasunean determinatzaile sozialek ere eragiten dute. Hauek, ezagunak diren ezberdintasun eta injustiziak sorrarazten dituzte. Beste era batera esanda, osasunean ekitate eza dago.

Urteetan, EAJk dituen baliabide guztiak erabili ditu esku pribatuak osasunean sartzeko, 1993ko "Osasuna Zainduz" programatik hasita eta, gerora, 15/1997 legera arte, zeinarekin bilatzen den osasun asistentzia publikoa izatetik aldentzea. Era berean, neoliberalismoak makinariak sorrarazi ditu osasuna, (edo, hobe esanda, gaixotasuna) merkantzia den ustea zabaltzeko, kontsumi daitekeen zerbait izango balitz bezala, eta ez eskubide bat. Merkatua ala bizitza, hor dago gakoa.

Osakidetza behin eta berriz erasotzen ari direnean, gestio eskasa eguneroko ogia denean, pribatizazioeranzko joera dagoenean, osasun sistema publikoa indartzea da garrantzitsuena.

Datu interesgarriak

- 2022an Osakidetzak azken hamarkadako batez besteko baloraziorik baxuena lortu zuen.
- Osakidetzan 51.500 kexa eta erreklamazio baino gehiago zenbatu ziren 2022an, 2021ean baino %47 gehiago, gutxienez.
- Guztira 23.831 herritar daude interbentzio baten zain.
- Osakidetzak 2023ko urtarrilean 45.323 langile zituen, eta hauetatik 38.405ek zeukaten lanaldi osoa. Hilabete beranduago, 41.618 langile zeuden, hauetatik 35.356 lanaldi osoan. Honek, hilabete bakar batean, 3.705 langile kaleratuak izan zirela esan nahi du, hauetatik 3.049 lanaldi osoan lan egiten zutenak.
- 2022an 189 mediku eta 233 erizain erretiratu ziren. 2023tik 2025era, aldiz, 1.391 mediku eta 912 erizainek hartuko dute erretiroa. Belaunaldi aldaketarako planifikaziorik ikusten ez denez, orain dagoen profesional gabeziari, jubilazio bolumen handia gehitu behar zaio.
- Oñatiko anbulatorioari dagokionez, 7 kupoetatik (eta lan gainkarga handia dagoen garaian):
 - 3 finkoak dira, goizez (batek 2/3 egiten du lan, eta beste herena ez dago beteta)
 - 2 bitartekotasun
 - 1 arratsalde (Arrasateko bitarteko batek betetzen du duela bi hilabetetatik, ordutegi partzialean)
 - 1 arratsalde (ez dago beteta)
- Eustat-en datuen arabera, 2021ean EAEn 500.000 pertsona baino gehiagok zuten osasun aseguru pribatua, hau da, ia biztanleriaren laurdenak. %6,4ko hazkundea egon zen 2019ko datuekin alderatuta. Aurtengo datu ofizialik egon ez arren, osasun aseguru pribatuek etengabeko hazkundera jarraitzen dutela baieztatu daiteke.

Herriko
txoko guztietara
iritsi nahi duzu?

jarri zure iragarkia aldizkarian

publi@onati.eus

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA





OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

Gure ekintzen berri emango duen atala...

UDALEKUAK ATE JOKA

Uda gero eta hurbilago dugu eta Oñatiko arte udaleku zein udaleku irekiak ate joka ditugu jadanik. 611 haur eta nerabek hartuko dute parte udalekuak diren abentura ikaragarri honetan. Hain zuzen ere, udaleku irekietan 572 hurrek eman dute izena. Bertan, Haur Hezkuntzako hirugarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko haurrak izango dira protagonista.

Arte udalekuetan, berriz, 41 pertsonak eman dute izena. Hauetan, Lehen hezkuntzako hirugarren mailatik Bigarren Hezkuntzako hirugarren mailara arteko haur eta nerabeek hartuko dute parte. Zozketa egin beharra izaten da tarteka, udalekuon nolakotasunak (ezaugarriak, beharrak...) eraginda, baina, aurten, ahalegin berezia eginda, izena eman duten guztiei eskainiko die Oñatiko Udalak udaleku hauen magia gozatzeko aukera.

Bi udalekuak egun berdinean hasi eta amaituko dira, hilabete bateko iraupena izanik. Hain zuzen ere, ekainaren 26tik uztailaren 21era bitartean egingo dira.

Udaleku irekietan sormena, parte hartzea, jolasa, errespetua eta aniztasuna bultzatu eta goraiatu nahi dira; eta arte udalekutan, berriz, printzipio berdinak oinarri, marrazkigintza, eskultura, margolaritza eta beste arte-adierazpen batzuk lantzeko aukera izango dute hurrek.

Aurten bada berrikuntza esanguratsurik: GAZTELEKUAN egingo dira arte udalekuak; eta, ELTZIAN, udaleku irekiak (hura iango da talde guztien topaleku).

Ohi moduan, euren jarduna ez da barruko espaziotara mugatuko. Ekintza ugari egingo dituzte herrian zehar. Honetan guztian hezitzaile talde ikaragarri bat izango dugu bidelagun. Gu gogoz gaude, eta zuek?



AGENDA

Maiatzak 6, Ludoteka ibiltaria izango dugu. San Migel Txikitako jaietan sartzen gara eta talo tailerra egiten dugu haurrentzat Txaloka udal ludotekatik. **Maiatzak 19**, Potx magoak saio bat egingo du Txaloka udal ludotekan.

ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTIETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LEHIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEA

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GEHIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

Fp-Lanbide Heziketa Oñatin

GOI MAILA

Egokitzapen Fisikoko
Goi mailako Teknikaria

ZIKLO BERRIA!

ERDI MAILA

- Mantentze-lan elektromekanikoetako Teknikaria
- Mekanizazioko Teknikaria
- Natura Inguruneko eta Astialdiko gidari-lanetako Teknikaria



Oinarrizko L.H. / Fp Básica

Administrazioko Zerbitzuetako
Oinarrizko Profesionala

Ateak Zabalik

Maiatzak 6, Larunbata, 11:00

AURREMATRIKULA

Maiatzak 8tik-26ra



@info@onati.net

943 899 300

MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA, KOOP. E.

Goi Mailako Heziketa

Zikloak

- | Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- | Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- | Sistema Elektrotekniko **Berria!** eta Automatizatuak
- | Fabrikazio Mekanikoko Produkzioaren Programazioa
- | Mekatronika Industriala
- | Automatizazio eta Robotika Industriala

Espezializazio

ikastaroa

- | Industria Mantentzearen Digitalizazioa **Berria!**

#LanerakoGertu



ATE IREKIAK

Maiatzak 6

11:00etan



Eman izena!

664298683
664298704



mondragon.edu/lanbideheziketa

HIKA EGUNA

Maiatzaren 13an ospatuko da, **Ingo Xonau!** taldeak antolatuta



Jai-giroan hika praktikatzea izango da Hika Egunaren helburua. **Hika-bazkaria** egingo dute, Iturritxo jatetxean, eta ondoren **hika-poteoa**. Arratsaldeko 19:00etatik aurrera, berriz, **Eingo** taldearekin batera ibiliko dira kalez kale, abesten eta dantzan. Herritarrei parte hartzeko deia egin diete **Ingo Xonau!** taldekoek. Oñatiko hika, bereziki noka (emakumeei egiten zaiena), biziberritzeko sortu zen talde hori, herri ekimenetik, eta 2019tik hainbat ekimen egin dituzte, Oñatiko Udalaren laguntzarekin: elkarrizketak, hika ikastaroak, hikalaguna, txapak, liburuxkak...

Iaz Trikika Eguna egin zuten, ekainean, Lizargarate trikitizale elkartearekin batera. **Eingo** taldearekin giro ederra sortu zen eta, horregatik, aurten ere talde bera gonbidatzea erabaki dute. Hika.bazkarian giro atsegin batean hika jardutea nahi dute: "Ez da beharrezkoa hika ondo egitea; gaizki eginez ikasten da", diote **Ingo Xonau!** taldekoek. Hika bizirik mantentzeko nahia duten guztiak daude gonbidatuta, adin guztietakoak. Bazkarirako izena emateko: Arranon eta Irizar estankotan.

» Hika-bazkarirako izena Arranon edo Irizar estankotan eman daiteke «

Herriko ikastetxe publikoek **Urgain Eguna** ospatuko dute maiatzaren 20an

Maiatzaren 20an ospatuko da **URGAIN EGUNA**, herriko ikastetxe publikoen komunitatearen urteroko egun osoko jai. Aurten, gainera, hamar urte dira Oñatiko eskola publikoen multzoa izendatzeko Urgain izena erabiltzen hasi zela eta kantu berria ere prestatu dute. Ondoa duzue guraso elkarteek prestatu duten egitaraua. Aurten, nobedade gisa, giza-dorreak ere egingo dituzte. Bestalde, bazkarirako tiketak maiatzaren 4 eta 9an egongo dira salgai Errekaldeko eskolan (16:30)



Ezkerrean, iazko ekitaldiko une bat. Goian, giza dorreak prestatzeko entsaio bateko irudia

» EGITARAUA

- 11:00** Kalejira musikatua Herrigunean zehar
- 13:00** Ekitaldia eta giza dorreak. Herriko plazan
- 14:00** Bazkaria Katering-az gain (paella) norberak etxetik janaria ekartzeko aukera egongo da. Zuazola Oñati Institutuan (Irunberri plazan)
- 15:30** Antzerkia Areto Nagusia Bingoa
- 16:00** Guztiontzako Tailerrak (Txatxilipurdi Elkarteak) Zirku tailerra, Sormen txokoa, Natur elementuekin jolasean. Zuazola Oñati Institutuan (Irunberri plazan)
- 17:15** Apar festa
- 18:00** Kontzertuak: Hamarraz eta XABA
- 21:00** Amaiera



ASEGURU AHOLKULARITZA ESPEZIALIZATUA

- 📍 ARANTZAZUKO AMA KALEA 9, BEHEA
- ☎ 943 089 006 📞 688 774 531 - WHATSAPP
- ✉ OINATI@COINBROKER.EUS



“GIGAK PARTEKATUZ AURREZTEKO TARIFA”



- FIBRA 300Mb**
- + MUGIKORRA 30GB**
- + DEI MUGAGABEEKIN**

39,90€ /HILEAN

2º LINEA MUGIKORRA
GB PARTEKATUZ
+3 €/HILEAN

KONTRATATU HEMEN:

 **LIZKER**
INFORMATIKA

ATZEKO KALE 32 | OÑATI, GIPUZKOA
TLF: 943 090 600



BEZa barne. Doako instalazioa, 3 hilabetez egon behar duena. Gehitu linea gehigarriak hilean 3 €-tik aurrera eta aukeratu zure GB linea nagusiarekin eta gainerako linea mugikar gehigarriekin partekatu nahi dituzun. Gehienez ere 3 euroko leerro gehigarri bat eta kontratu bakoitzeko beste hiru leerro gehigarri. Kontsultatu gainerako baldintzak salmenta-puntuari.

MÁSMÓVIL

AHORRA, SIN MÁS

HERRIKO FUTBOL TXAPELKETA 2022/23**ALBOK****SASQUATCH****SARUTOBI****TUTELATRAKU****GOLEGILE ONENA****ATEZAIN ONENA****JOKALARI BETERANOENA****ALBOK TXAPELDUN**

Ligako finalean **Sasquatch** hartu du mendean. Kopako finalean **Sarutobi** nagusitu da penaltietan, **Tutelatrakuren** aurka

Apirilaren 29an jokatu ziren Herriko Futbol Txapelketako finalak, ligakoa eta kopakoa. Ligakoan **Albok** nagusitu zen 2-0 **Sasquatch** taldearen aurka. Julen Aranbururentzat izan zen finaleko jokalaria onenaren saria. Kopako finalean emozioa izan zen azkenerarte. Arauzko denbora 2nako berdinketarekin amaitu ostean, **Sarutobi** (aurten egin du estreinaldia txapelketan) nagusitu zen penaltietan, **Tutelatrakuren** aurka. Xabi Santakruzentzat izan zen jokalaria onenaren saria. Ondoren, sari banaketa egin zen. Denboraldiko golegile onenaren saria **Roberto Idigorasek** (Mazedonia) irabazi du. Gol gutxien jasotako atezainarena **Aitor Sanchezek** (Albok) eta jokalaria beteranoenarena **Jon Pildaintzat** (Albok) izan da.



Mekalki
S. Coop. mekanizatuak
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



oñabike.com

Otadui 25, Oñati · Tel.: 943 78 05 65

BIZIKLETAK · PATINETEAK · KIROL EKIPAZIOAK

MENDI IRTEERA / MAIATZAK 21

GORLA-ELGOIBAR

Elosumendi (885m), Irukurtzeta (898m) eta Karakate (756m)

Aloña Mendik maiatzerako antolatu duen ibilaldia Gorla eta Elgoibar artean izango da, Deba eta Urola ibaiak banatzen dituen mendilerroan zehar. Neolitiko eta Brontze garaiko gizataldeek horrelako mendilerroak erabiltzen zituzten hilibiratzeko eta lurralde mugak markatzeko, eta ibilbidean zehar aztarna ugari ikusteko aukera egongo da. Denera, 17,3km.-ko ibilbidea da (+250m), 6 ordu inguruan egitekoa. Ez du zailtasunik. Irteera goizeko 8etan izango da, postetxe parean, baina izena emateko azken eguna hilaren 18a izango da, Aloña tabernan edo alonamendi.mendi@gmail.com helbidean. Prezioa, 10€. Federatuta egon behar da.



XVIII. ALOÑAKO IGOERA

Marka ezarri du MALEN OSAK



Pronostikoak goitik behera betez Aitor Ajuria (Domusa Teknik-Lana) otxandiarra eta Malen Osa (Salomon) oñatiarra izan dira azkarrenak Aloñako Igoeran.

Oñatiarraren kasuan jarraian lortzen duen hirugarren txapela da eta, gainera, marka berria ezarri du emakumezkoetan (2:18:34), Maite Maiorak zeukan errekorra (2:20:40) onduta. Ia aurkaririk gabe, erlojuaren aurkako lehian Malen Osa gailendu zen, euriak eta haizeak gogortutako lasterketan. Maddi Mujikak (2:43:45) eta Garazi Abasolok (2:48:02) osatu zuten podiuma.



Gizonezkoetan, Aju-riak (2:03:35) bere bigarren txapela jantzi zuen. Iñigo Uribetxebarriak (2:07:45) eta Mikel Zabalegik (2:08:01) osatu zuten podiuma, eta Xabi Lete (2:17:20) izan zen lehen oñatiarra (10.). Ia 300 lagunek amaitu zuten lasterketa eta guztiek goraiatu zuten antolatzaile eta laguntzaileen lan bikaina. Zorionak.

HAURRENTZAKO UDAKO URETAKO SAIOAK



Udan (ekainak 26 - uztailak 21) haurrei (2015, 2016, 2017 eta 2018 urteetan jaiotakoak) zuzendutako ur ekintzak egongo dira Zubikoa kiroldegian. Astean saio bat (45') izango da. Saioak goizez izango dira, (egun eta ordu ezberdinetan, adinaren arabera. Galdetu kiroldegian). Izen-emateak kiroldegian bertan egin behar dira. Gutxienez 8 haur beharko dira taldea osatzeko. Izen-emateetan gehieneko kopurua gainditzen bada, zozketa egingo da. Prezioa: 12,25 € (bazkideak) / 14,70 € (ez-bazkideak).

HERRIKO PILOTA TXAPELKETARAKO IZEN-EMATEA

Maiatzaren 4an irekiko da aurtengo herriko pilota txapelketan parte hartzeko izen-ematea, Arrano eta Aker tabernetan, maiatzaren 21era arte. Urtero bezala, ekaina eta uztailean zehar jokatu da txapelketa, irailean azken kanporaketak, eta jaien inguruan finalak.

HERRIEN ARTEKO TXAPELKETAN AMEZKETAREN AURKA

Iaz bezala, Oñatiri Amezketa egokitu zaio aurkari Herrien Arteko Pilota Txapelketako aurreneko kanporaketan, final zortzirenetan. Oñatin jokatu dute aurrena, maiatzaren 13-14ko asteburuan, eta Amezketa hurrengoan. Kanporaketa gainditzen duenak Larraul eta Azpeitiaren arteko irabazlea izango du aurkari final laurdenetan.



Iazko herriko pilota txapelketako finalistak



NORDIC WALKING IKASTAROA

Zubikoa kiroldegiak eta E-goitek kirol zerbitzuak antolatuta, Nordic Walking ikastaroa egingo da maiatzaren 8 eta 15ean. Ordu eta erdiko bi saio izango dira, 17:30etatik 19:00etara. Prezioa, 14,43€ bazkideentzat (19,5€ bazkide ez direnentzat). Informazioa eta izen-ematea Zubikoa kiroldegian, 943 71 63 75.

MUSIKA ASTEA

Maiatzaren 12tik 18ra, Musika Eskolak antolatua

Azken urteotako ohiturari jarraituz, maiatzarekin batera Musika Astea antolatu du Jose de Azpiazu Musika Eskolak, maiatzaren 12tik 18ra. Kontzertu ezberdinez gozatzeko aukera egongo da eta, gainera, maiatzaren 13an musika eskolan irakasten diren instrumentuen erakustaldia egingo dute herriko plazan.

MAIATZAK 12 FORUEN PLAZAN (Parrokiko sarreran), 19:00

ILLUNBE AKORDEOI ORKESTRA

Pasaiako akordeoi orkestraren kontzertuak emango dio hasiera Musika Asteari. Herriko plazan izango da emanaldia, parrokiko sarrera ondoko gunean. Oñatiko musika eskolako akordeoi taldeak ere parte hartuko du emanaldian.

MAIATZAK 13 FORUEN PLAZAN, 11:00-13:00

INSTRUMENTUEN ERAKUSTALDIA

Oñatiko musika eskolan erakusten diren instrumentuak kalera aterako ditu Musika Eskolak. Instrumentu bat ikasten hasi aurretik gustuko duzun edo ez ikusi, probatu eta hautatzen laguntzeko aukera ezin hobea.

'KANTU KOLORE' TALDEAREN EMANALDIA

ZUBIKOA PILOTALEKUAN, 18:00

KANTU KOLORE
PERU KROKODILOA

Maiatzak 13, zapatua
Oñatiko Zubikoa pilotalekuan
18:00etan

Sarrerak salgai:
j.amusikaeskola.sarrerak@gmail.com

Musika Eskolan
Astelaren ostiazken
17:00-19:00

SARRERAK
6€

DMN

Haur eta gaztetxoei zuzendutako eta familia giroan gozatzeko kontzertua izango da

'Kantu kolore' taldeak 'Peru krokodiloa' ikuskizuna eskainiko du Zubikoa pilotalekuan. Sarrerak (6€) j.amusikaeskola.sarrerak@gmail.com helbidera idatzita eskuratu ahal izango dira, edo musika eskolan bertan astelehen eta asteazkenetan (17:00-19:00). Bi urtetik beherako haurrentzat dohainik izango da.

MAIATZAK 15 - 18 SANTA ANA ARETOAN eta GAZTELEKUAN

ENTZUNALDIAK

Musika eskolako ikasleen emanaldiak izango dira.

ZINEGOAK jaialdiko filmak Oñatin ikusgai

Bilboko LGTBQ+ zinema eta arte eszenikoen jaialdiko lanak ikusteko aukera izango dugu kultur etxeko zine aretoan, **maiatzaren 24an**. Sexu aniztasunaren inguruan sentsibilizazioa lantzeko asmoz sortu zen LGTBQ+ jaialdiak 20 urte betetzen ditu aurten.

Oñati Abesbatzak eta Talavera de la Reinako Coro Quadrivium abesbatzek kontzertua emango dute elkarrekin, maiatzaren 13an



Oñati Abesbatzak eta Talavera de la Reinako Coro Quadrivium abesbatzek aurten egin asmo duten elkartrukearen baitan kontzertua eskainiko dute maiatzaren 13an, Agustindarren elizan, arratsaldeko 19:30etako mezaren ostean (20:00ak aldera). Nuria Jiménezek eta Mirengu Plazaolak zuzenduko duten emanaldi horretan bi abesbatzek elkarrekin abestuko dituzte *Heaven is a wonderful place* eta *Freedom is coming kantak*. Horiez gain, *Maitia, non zira?*, *Kantauri*, *Canción de Ronda*, *Three contemporary latin settings*, *Ipharadasi*, *El Abanico...* entzuteko aukera egongo da.

Kontzerturako sarrera (5€) Txokolateixan eskuratu ahal izango dira maiatzaren 2tik aurrera. Kontzertu egunean bertan sarrerak hartzeko aukera ere egongo da. Oñati Abesbatzako kideak urriaren 20tik 22ra joango dira Gaztela Mantxako herrira.

Musika bandaren denboraldiko azkena, kultura arloan arrastoa utzi duten pertsonari eskainia

'HISTORIALDIA' du izenburua Oñatiko musika bandak ikasturte honetan eskainiko duen 'Entzunaldiak' zikloko seigarren eta azken kontzertuak. Eta, hain zuzen ere, musikan, letretan eta, oro har,



artearen arloan arrastoa utzi duten pertsona ezberdinei (Miguel de Cervantes, Leonardo da Vinci, Michael Jackson, Nino Bravo...) eskainita egongo da. Hala, *El Quijote* (Ferrar Ferran), *Leonardo* (Otto M. Schwarz), *La Antigua* (Jacob de Haan), *Nino Bravo en concierto* (Manuel Calero Garcíaren moldaketa) eta *Michael Jackson Hit Mix* (J. Vinsonen moldaketa) obrak eskainiko ditu musika bandak Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean.

Maiatzaren 28an izango da kontzertua, Zubikoa pilotalekuan (13:00). Sarrerak (dohainik) txokolateixan.



#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale
#NiTokikozale



Maribi Mizke



Amaia Irizar



Ane Sillero



1 "Bizilagun bat izan genuen denbora batez almagazenean; Margarita, sugandila"



2 "Ez naiz damutzen ikasketen bidea alde batera utzi izana. Pertsonak eta denda maite dut"



3 "Zarata bat entzuten nuen denda; zer izango eta txori bat. Susto galanta hartu nuen!"

Jolastu, lotu eta dendariak ezagutu

Bete itzazu alboko hutsuneak. Erantzun zuzenak, hilean zehar publikatuko ditugu sare sozialetan.

1 2 3

AGENDA

Kultur ekitaldiei buruzko informazioa eta sarrera salmenta www.onati.eus webgunean (QR kodean) edo Txokolateixan



ANTZERKIA

MAIATZAK 26 / 19:00
'OVOLUCIONANDO'

Jabetze Eskolaren ikasturte amaierako ekitaldia, Cankaneo taldearen eskutik. Herritar guztiei irekia. [Santa Ana aretoa](#).

AUZOETAKO JAIXAK

MAIATZAK 5-7
SAN MIGEL TXIKI JAIXAK
MAIATZAK 19-21
ERREKALDEKO JAIXAK

BERTSO SAIOAK

MAIATZAK 27 / 17:00
'SEÑORA' SARIKETAKO FINALA
III. Señora Sariketako finala. Sarrerak (10€) [bertsosarrerak.eus](#). [Gaztelekuan](#).

HITZALDIK

MAIATZAK 10 / 10:00
'GURE HISTORIA, PARROKIJETATIK PENTSATUZ'
Hizlaria: Aintzane Erkizia. Esperientzia Gelak antolatuta. [Santa Ana aretoan](#).

MAIATZAK 10 / 18:00
'HETERO-ARAU ETA GENERO DISIDENTZIA'
Hizlaria: Elene Lopetegi eta Iñigo Etxezarreta. [Kultur etxeko atikoan](#).

MAIATZAK 11 / 18:00
'ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APUSTUA EUOPAR BATASUNEAN'
Hizlaria: Pello Irujo, Laulagun Bearings enpresako zuzendari orokorra. Ikastolako Eskola Agendaren Guraso Batzordeak antolatuta. [Kultur etxean](#).

MAIATZAK 23 / 18:30
ADINEKOEN BABESERAKO HITZALDIA
Hizlaria: Caixa Bank / Securitas Direct. [Pake Lekun](#).

MAIATZAK 23 / 19:00
YEMEN. EGOERA HUMANITARIOA
Hizlaria: Eva Erill (Solidarios Sin Fronteras). [Kultur etxean](#).

MAIATZAK 30 / 18:30
LEHEN LAGUNTZA PSIKOLOGIKOAK
Hizlaria: Juango Sagarzazu. [Pake Lekun](#).

MARGOLANEN ERAKUSKETA

MAIATZAK 8 - 21



Benjamin Picoren olio eta akrilikoak ikusgai kultur etxean, astelehenetik igandera (18:00-20:00).

MAIATZAK 31 / 19:00
MELILLA - FRONTERA SUR
Hizlaria: Solidary Wheels GKEko ordezkariak. [Kultur etxean](#).

IKASTAROAK

OÑATIKO KZgune-ko IKASTAROAK
'BakQ ziurtagiria', 'Oinarrizko Internet. Nabigatzen eta posta elektronikoa bidaltzen ikasi', 'Google Traductor. Testuak eta web orriak itzuli', 'Ofimatika tresnak: LibreOffice', 'Google dokumentuak. Sortu zure testuak hodeian', 'Kudeatu zaitez Google aplikazioekin', 'Informatika hodeian. Ezagutu zer den hodeia'. Informazioa eta izen-ematea tutor.onati@kzgunea.net / 943023672 .

IRTEERAK

MAIATZAK 18 / 11:00
OÑATI EZAGUTZEN: TXOKOLATEIXIA
Pake Lekuk antolatuta. [Txokolateixan](#)

KONTZERTUAK

MAIATZAK 12 / 19:30
ILLUMBE AKORDEOI ORKESTRA
Pasaiko taldearen emanaldia. [Foruen plazan](#) (parrokiako sarrera ondoan)

MAIATZAK 12 / 21:00
STREETWISE + SOFOCADOS
Sarrera, 8€. [Ikatz tabernan](#)

MAIATZAK 13 / 18:00
KANTU KOLORE
Haur eta familientzako ikuskizuna. Sarrera, 6€ (2 urtera artekoak dohainik). [Zubikoa pilotalekuan](#)

MAIATZAK 13 / 20:00
OÑATI ABESBATZA + CORO QUADRIVIUM
Oñati eta Talavera de la Reina abexbatzen kontzertua [Agustinoen elizan](#)

MAIATZAK 28 / 13:00
MUSIKA BANDA
Musika Bandaren denboraldiko azken kontzertua. [Zubikoa pilotalekuan](#)

LAN SAIO IREKIAK

MAIATZAK 11 eta 31
OÑATIKO EMAKUMEEN ETXEA
Etxearen barne banaketa eta egituraketa definitzeko saio irekiak. Ordua zehazteke. [Eltzian](#).

TAILERRAK

MAIATZAK 6 / 11:00 - 15:00
SENDABELARREN IKASTAROA+JANARIA
Basoko landare ezagunenak identifikatzen ikasteko: propoetateak, erabilerak... Janari beganoa, produktu ekologikoekin eta inguruko landareekin. Prezioa; 45€ (janaria barne). Izena emateko: 659 394 529 (Leire Martinez). [Araotzen](#)

MAIATZAK 27 / 10:00 - 14:00
CONSTELACIONES FAMILIARES
Maria Luisa de Dios García adituaren eskutik Parte-hartzea baieztatzeko deitu: 628 212 839. [Eltzian](#)

ZINEA

MAIATZAK 10 / 19:00
'EHIZA'
Giza eskubideen urraketa salatzen dituen film laburra. [Kultur etxean](#)

MAIATZAK 17 / 19:00
'HAIZEAREN EGIA'
Euskal Herrian bizi den haur saharar baten inguruko film laburra. [Kultur etxean](#)

MAIATZAK 24 /
ZINEGOAK HEDAPENA
Bilboko LGTBIQ+ jaialdiko filmak ikusgai. [Kultur etxean](#)

IPUIN KONTAKETA

'Lolo munstroa eta Margarita sorgina'

- MAIATZAK 25 (18:00)
- 4-5 URTEKO HAURENTZAT



Ostegun Kontalariak ekimeneko ikasturteko azken ipuin kontaketa saioa izango da, kasu honetan 4-5 urte arteko haurrei zuzendua. Txikitan abandonatutako etxe batean sartu ondoren, gure ipuin kontalariak liburu magiko bat eskuratu zuen. Honen laguntzaz, Lolo ezagutuko dugu, ohe azpian bizi den munstro bat, haurren beldur dena, eta Margarita, gaiztakeriarik egiteko gai ez zen sorgina. Izen-ematea, maiatzaren 15etik aurrera udal liburutegian.



Neguko Gida

Josephine Mark egileak sortutako lan honek haur komiki onenaren **Max und Moritz** saria irabazi zuen Erlangen hirian 2022an, eta, hain zuzen ere, ertz asko dituen lana da: errealista nahiz zoroa da, baina baita sentibera eta dibertigarria ere.



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16
Maiatzak 5, 6, 7, 15, 16, 24 eta 25.
Ekainak 2, 3 eta 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22
Maiatzak 1, 8, 9, 17, 18, 26, 27 eta 28.
Ekainak 5 eta 6.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58
Maiatzak 2, 10, 11, 19, 20, 21, 29 eta 30. Ekainak 7 eta 8.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28
Maiatzak 3, 4, 12, 13, 14, 22, 23 eta 31. Ekainak 1, 9, 10 eta 11.

ZINEA



Martxoak 31-Apirilak 3

ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
Fatum
GAZTETXOAK:



Apirilak 13 - 17

ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
Mi crimen
GAZTETXOAK:



ORDUTEGIA

Zine-kluba: Osteguna (20:00)
Nagusiak: Ostirala (22:00), larunbata (22:00) eta igandea (19:30 eta 22:00).
Astelehena (19:30 / ikuslearen eguna)
Gaztetxoak: Larunbat eta Igandea (17:00)

Apirilak 6 - 10

ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
Gelditasuna ekaitzean
(Euskaraz, azpi idatziekin)
GAZTETXOAK:-



Apirilak 20 - 24

ZINE KLUBA:

-
NAGUSIAK:
Las buenas compañías
GAZTETXOAK:



MERKATU TXIKIA

LAN ESKAINTZA Oñatiko bulegoan bezeroei arreta emateko pertsona bat behar da. Ezinbestekoa da: komertzial lanerako abilezia, talde-lanean aritzeko trebetasuna, euskara eta gaztelania menperatzea (oinati@coinbroker.eus).

GARAIE ITXIA salgai San Juan kalean. Deitu: 608 77 10 61.

GARAIE bat alokatu edo erosi nahi nuke Portu kafetegitik hurbil. Deitu: 610 466 020

ETXEKO LANAK Oñatiko emakumea etxeke lanak egiteko gertu: 645703721

ODOL ATERALDIA

MAIATZAK 19 / 16:30-20:30
enpresagintza fakultatean. Hitzordua hartzeko, deitu: **943007884**

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teleline.es

GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



(*) Itten: arrastua, pistia

>> EUSKERAZ EGOGI

Deklinabidia (III)

Leku-izen propixuen **NUNGO** eta **NUNDIK** kasuen deklinaziñua:

Euskera baturako onartutako arauak esaten doskue 'n', 'l', 's', 'z', 'tz' edo 'r' letrak in akabotako leku-izen propixuen deklinaziñua bi eratara egin leikiela: Irungo/Iruneko; Madrildik/Madriletik; Paristik/Parisetik; Gasteizko/Gasteizeko; Zarauzko/Zarautzeko, Eibarko/Eibarreko eta abar.

Gurera etorritta, esan bihar dogu **NUNGO** kasuan 'n'-z akabotako berbetan **-GO** egitten dogula gehixenetan. Ikusi degigun etsenplu batzuk:

Altzingo Jose Luis, Aizgaingo/Aizgaiñeko ur-depositua, Irabango famelixia, San Juango eta San Juliango ermittak, San Martingo poligonua, Upaingo Juanito, Urtiagaingo/Urtiagaiñeko erretegia...

Eta 'l'-z akabotakuakin bardin:

Ertzilgo ama, Irazabalgo aitta, Milpiribilgo/Pinpilgo tontorra, Urubilgo famelixia...

NUNDIK kasuan, berriz, 'n'-z eta 'l'-z akabotako berbetan, **-DIK** akaberia oso normala da, nahiz eta **-eTIK** be egin. Eta horrekin batera aittatu bihar dogu, Oñatiko euskera zaharrian 'nundik' eta 'nundi' formak ebalu dirala, Candido izaguirreren edo Graziano Anduagaren testuak irakurritta ikusi leiken moduan.

- *Duruandik, Erretxindik/Erretxiñetik, (Okomardia) Okunbardindik/Okunbardiñetik...*
- *Ertzildik, Irazabaldik/Irazabaletik, San Martindik behera, Urubildik gora, Zelaizabaldik/Zelaizabaletik...*
- *Batzuk aúrreti tta bestiak ondorian; haméndi apárte; Kanpanzardi Oñatira ibillaldixa dago; nundi nora habil?; urriñeti etorri dira ...*

Eta hemendik kanpoko leku-izenekin bardin jokaketan dogu:

Andoaingo Udala, Arlabango Ama Birjiñia, Ataungo On Jose Migel Barandiaran, Azkaingo elizia, Baliarraingo amorraiñak, Beasaingo Jose Antonio, Irungo mugia, Iturengo arotza, Urdaingo abade Jose M^a Satrustegi, Brasilgo aratiztixak, Guayaquilgo portua, Portugalgo fadua, ...

Hona hemen 'r'-z, eta 'tz'-z akabotako beste berba batzuen adibidiak:

Angiozargo/Angiozarreko itsua, Aralargo itxabolak, Arbelargo Domingo, Koizkargo etxe azpixa, Araozko / Araozgo saloia; Akaizgo eta Buetraizgo tontorrak; Arrikruzgo aldatsa, Landarraizgo / Landarraitzeko puntia...

	NUNGUA	NUNDIK / NUNDI
-N	Duruangua	Duruandik / Duruanetik
	Erretxingua	Erretxindik / Erretxiñetik
	San Martingua	San Martindik / San Martiñetik
-L	Ertzilgua	Ertzildik / Ertzilletik
	Irazabalgua	Irazabaldik / Irazabaletik
	Zelaizabalgua	Zelaizabaldik / Zelaizabaletik
-R	Altzibargua	Altzibardik / Altzibarretik
	(E)iziargua	(E)iziardik / (E)iziartik / (E)iziarretik
	Koizkargua / Koizkarrekua	Koizkardik / Koizkarretik
-S	Antzuelasgua / Antzuelaskua	Antzuelasdik / Antzuelastik
	Idigoras: Iruazgua / Iruazkua	Idigoras: Iruazdik / Iruaztik / Iruatzetik
	Parisgua	Parisdik / Paristik / Parisetik
-(T)z	Araozkua / Araozgua	Araozdik / Araoztik / Araotzetik
	Arrikruzkua / Arrikruzgua	Arrikruzdik / Arrikruztik / Arrikruzetik
	Umerezkua / Umerezgua	Umerezdik / Umereztik / Umerezetik

Jentilizioak:

N-z akabotakuak:

andoaindarra, ataundarra, azkaindarra, beasaindarra, gerendaindarra, irundarra, lezaundarra, urdiaindarra...

L-z akabotakuak:

arakildarra, brasildarra, errezildarra, madrildarra, portugaldarra, usurbildarra...

S-z, TZ-z eta Z-z akabotakuak:

antzuelastarra, araoztarra, umereztarra, urduliztarra,...

ASTEKO EGUN BAKOITZEKO KOLORE BAT.

Nola sentitzen zara
gaur?

KONFIDANTZAZ

POZIK

EDERTO

LOTSATI

RELAX

NATURAL

ARMONIAN

INDARTSU



amuebladoramondragonesa.com

C/ Zigarrola 1, Arrasate (Gipuzkoa)

